



URRATS

PAULIN

Solozabal'tar Paulin
«Paulin»

URRATS



BIZKAIKO FORU ALDUNDIA

BASERRIA, EUSKEREA, ZINTZOTASUNA...

Amargaren liburua eta orain-arteakoak baiño mardulagoa argitaratu dausku Paulin'ek.

Bere maitasunik gurenak agertzen dauz olerkariak: Baserria, euskerea ta euskaldunen zintzotasuna oñarri dirala.

Baserrian jaioa da eta ikasketak egiten igarotako amabi urteak izan ezik besteak baserritik urrean igaro dauz: Arabako Basabe (Baldegobia'n) lenengo urteak eta gero berrogetak urteak Mungia'n, baserritik urrean, naizta lantegi - giroko usain ona be zabaldua ikusi. Gaiñera azkenengo 17 urtetan Laukariz baserriko arduradun lez egin dau bere lana. Mungia'ko giro atsegingarria itzi barik.

Ez da ba arritzekoa txikitan etxean ikusi ebana eta bizitzan bizi izan dauana bor-bor gaiñeratzea olerkietan. Bakoitxa, norbera eta norberaren inguruak osotzen dau.

Eta eragozpen onek azpiratzeko, euskaldunak egin dabezan alegiñak eta lortu dabezan ondorenak agertzeko eredu lez, gizon euskaldun batzuk agertzen dauz: Arrasate'en lan txalogarria egin eban Arizmendarrieta, Euzkadi osoan eta erbestean zuzentasuna eta bakea sortzen alegindu zan Alberto Onaindia, eta orreikaz batera Joseba Andoni Aguirre, lenengo Lendakaria. Oneri buruz ikuspegi barria ta egokia agertzen dau olerkariak, bere gizarte-giroko jokabidea, lantegiko arduradun izan zane-

tik asita. Orduan, oraindiño arlo onetan gauzak beste era batera ikusten ziranean, bera eredu izan zan langilleak jabetasunera eltzeko bideak zabaltzen eta orregaitik bere aldiko baltzu-buru askok ez eben ontzat artzen gero Lendakari izango zan gizon aundia.

Zelako olerkiak diran?

Egunerik egunera doa obarantza Paulin, baserriko umea gizon izatera eltzen dan antzera.

Ezinéukatuak ditu Paulin'ek euskera garbia ta zuzeé na, Etxebarriko seme jator bateri dagokiona, neurri egokia eta azken-bardin aukeratuak.

Baiña olerkariari geiago eskatzen jako: "Enthusiasmos" edo berotasuna. Biotza bear dau. Eta onetan zelan dagon? Egia esateko iñongo olerkarik ez dau ori lortzen bere olerki guztietan, batzutan geiago agertzen da, urren-goetan gitxiago. Ba-dira liburu onetako ainbat olerki barruko berotasun ori gorengo maillara elduta daukenak, esaterako, euskeraren edo abade euskaldunen jazarpena aitatzen diranean.

Eta trebebideak?

Barruko berotasun ori agertzeko olerkariaktrebe lez agerbide batzuk artzen dauz: irudiak, errepikak, olerki-otsa... Orretan be liburu onek aurrerapena egin dauala agertzen dau.

Irakurle, Iturria emen dago, ur garden eta gozoa dariola... egarri ba-zara, etorri eta edan... Olazar'tar Martin'ek

ESKEIN - ITZ

Euzko izkuntza bat da eguzkia bat dan antzera. Egunezko izar onek dizdizera ezbarðiñak ditu. Alderdi guztietan ez dau bardin berotzen. Euskalerrrian bertan, eguzki giro ezbarðiñak ditugu gure zazpi lurralde eder ederretan. Baiña arnas batek indartuta legez, gure lurra orlei, indartsu ta oparoa da.

Egun izarraren indarra, ortxe, agertzen da, euskal izadia dizdizera ezbarðiñez indartu ta oparoturik.

Gure izkuntzak be euzko gizadiaren aldetik dizdizera ezbarðiñak artu ditu ta aize ezbarðiñen bidez, izatez, arpegi bardíñekoa izanik, margoa zerbait ezbarðiña dau, baiña arpegia ta izkuntza euskaldunena, euskera.

Euskeraren euskalkietan bizkaiera da euskera, geien, erabilia ta etsaiaren su guztia orren aurka agertu dá.

Gaurko gizartean ez da kit za pa lduen eta beartsuen alde jokatzek balio ba-dau... Nik euskerari ta oroz goitik, sortzez, Bizkaitik artu neban izkuntza minduari, abegi onez, olerki onek eskeintzen dautsodaz.

SORRERA

A zan gauaren baltza...!
Upan baiño illunago
bizi zan seintxoaa;
ez negar, ez kezkarik
umekia ixilik...
itxirik aoa.

Amaren erraietan
artu eban arnasa
aragi, azurra;
antxe alkartu ziran
gogoa ta odola
giza irudira.

Amaren sabelean,
ate danak itxita,
aurra zoragarri;
nik ez nekien zer zan
argi gabeko gaua,
ama maitegarri.

JAIOTZ

Miñen artean dator
ezer baiño maitego
izango dan aurra;
miñak egin maitale
odolaren odola
azurren azurra;

Amaren jauregitik
mundura agertu da
gorputsez billutsik;
otz-ki rria sentitzen
ta negarra dario
begi **barrenetik**.

U mearen negarra
eta amaren poza
besarkatu dira;
semeak asmau eban
amaren maitasuna
aurrari begira.

B I R A K A

Leen orduak ba-doaz
argi izpietan biurrika,
ain da ezereza;
bizi eskubiderik
gaisoak ba ete dau
uskeri gisara... !!

Izaki barria da:
adimen - borondatez
ta gizon jantzia;
azurak bizia nai,
baiña ezpajian dago
bere arnasia.

Mantelxoan artean,
benetan ikusgarri
kilo ta laurenez;
txoritxua dirudi
aizeak eroan leiken
egada bizkorrez.

OTARRE

Zumitzezko otarre,
urrezkoa **dirudi**
apainki **egiña**;
ku l u n ka goxoetan
biotz batek darabil...
esku zuri piña.

Oial **zuri artean,**
ain izaki txikia
lo gozotan **dago**;
ez egizu esnatu
izarretan **izar da,**
bera ederrago.

Lo luze, lo ezitia...
aingeruzko **argia**
dizdiz arpegian;
bakea dau barnean,
erru-bako egona
oialen **artean.**

KUMEAN

Egunsenti ederra,
usain gozozko lorez
ernai, alaitua;
txanbeilñen txanbelin
umea eta goiza
pozez urretua.

Mutil koskorra dago,
ezer-ezko irudi,
lo-zorro eztitan;
begi biak itxita,
esku zuri zuriak
aidez jolasetan.

Zer ete da mundua...
Nora zatoz au rtxoa
begiak lausorik...?
Argia ederra da
biziaren sorkeran
pozez lurrundurik.

URTEERA

Lenengo urtenera
maitasun besoetan
zurizko jantzirik;
sinismena ta poza
aitaren begietan
dizdizeraturik.

Dan dan, eleiz atetan,
aur barria dakargu
onespen eskean;
Jaungoikozko ezkarrez
seme barri eitea
nai dogu eleizan.

Aita bitxik gogotsu,
Paulin izena baiño
zer ederragori k... !
"Paulin" apaizak diño,
nik bateatuten zaitut
edurrez jantzirik.

SINISMEN

Aingeruzko lirio,
eleizako usaiña
umeri darlo;
Jainkozko **errukiak**
artu dau **besoetan**
eskarrez jario.

Eskerrik-asko Jauna,
semetzak artzen nozu
jaiotz be **retat** iki
bizitzako argia
bizturik itzi dozu
barnean **gorderik.**

Nork zainduko ete dau
adiskidetasuna
gu bion artean?
argizagi ederra,
argitu nire oiñak
illunpe **baltzean.**

BITZA

Kriatau eskutukia
bateoko arrian
osotu zan goizez;
usoa ez zan izan
ura ta itzak baiño
adierazmenez;

Edurra baizen zuri,
geratu da aurtxoa...
nor eldu da zugan?
seme barri ein zara,
Jainkoaren atsegin
nortasun zorian.

Lorarik ederrena...
aurtxo aingeruzkoa
gaur biurtu zara;
zeruko aingeruak
begira zendukezan
osasan barrian.

IZAKI BARRIZTUA

Laztan bat orain lenen,
txertatu barriari
Jainkozko bizitzan;
oro ederra da-ta
izarren dizdizeraz
basoko lupetzan.

Ain zuri urten dozu...
Jainkoaren antzera
dozu irudia;
seme barria, zoaz
baserrira bidean,
larrosa zuria.

Ez dozu zer bardiñik
ez mendi gaillurretan
ez txori egadan;
arraiña urez baiño
doatsuago zara
zeure Jainkoagan.

MAI ETZA

Maietza, zer daukazu...?
Nork egin zaitu zu
biotz maitegarri...?
eskutu indarren bat
zu apaintzen al dabil
zelai miresgarri...?

Zelaiak, sagastiak
erne-miñetan dagoz
maietz orlegian;
baratzak atxurturik,
lorerik pitxienak
daukaz usañian.

Lore naiz basa dana
maiatzean jaio zan
eguzki argira;
orleizko izadia,
urre zuriz jantzita
egoan begira.

KUKU

Loretan lore dana
maietz abeslarian
kukua kantari;
montor ostean dabil
zelaitik zugatzera,
lirain, egazkari.

Maitasunezko kanta
umetxoei abian
goiza urratzean;
umea ixil ixil
amillotxaren lerrez
abi barrenean.

Mutil jaio barria
atsedenetan dago
ojal zuripean;
noz ikusiko ete
kukuaren lumea
zugatz adarrean...

DEADAR

Ametsezko goiza zan,
orri ak erne-miñez
zugatz begietan;
aizeak darabiltzaz
alkar musuz aidean
eguzki izletan.

Udabarriko indarra,
baserritarren pozez,
lur betean dator;
lubarri ta aldapak
euriz eta eguzkiz
biziaren moskor.

Ainbeste edertasun
ta Paulin lo zorroan
izaki kaskarra;
zeruak sortu nindun...
ezin neike deuseztu
bizitz deadarra.

LO

Negu illuna jun zan...
ekaitzez zaurituta,
trumoi dardaratan;
zugatz eta notiñak
oiñeztuak auldua,
sarri, odoletan.

Arkaitzak jausi ziran
tximistak zartatuta
aldatz malkarretan;
geroz udabarria
orlegiz apaindu da
argizko izletan.

U rretxi ndorra dabil
kantuak biribiltzen
abots zoragarritz;
mutil jaiobarria,
gaisoa, oraindik lo
bizitza Iokarriz.

ZUZPERTU

Euzko **lur** atal onek
seaska bat dirudi
landa orleiz apal n;
aurrean, arantzago
mendi gailena **ernai**
ta zerua urdin.

Seaska babesean
mendi tontorrek tinko
zugatz orri-miñez;
arru **eta** oianak
alkarrereri **begira**
maitasun samurrez.

Seaskan agon **mutil...**
noz ikusiko dituk
lur aintzagarriak...?
zuzpertuko **ete** az
artu al dagiazan
izadi argiak?

LOTAN

Arbasoen jarduna,
orlegizko jantzirik,
darakust mendiak;
zelai erdi erdian
aittitteren barruak
artzen dauz argiak.

Etxe zuri zuria
argi izletan dago
pozaren kilimaz;
eguzkira begira
dana eder dario
aize garbiagaz.

Mutilla, nun, ete da...
oraindik oialetan
begiak itxita;
ezer ezin amestu
gaisoa lotan dago
aingeruz jantzita.

MAITIA

Baserriko bakea
ain ederra dalarik,
moskorrez naukazu;
eguzkia berantza
eta zerua ederrez
minberatu nozu.

Eguzkizko izpiak
zure ormetan, dizdiz,
maitea **darlo**;
ezin agurtu dira
eguzki ta etxea:
itzaren jario.

Nun ete da maitia,
etxeko pospol i ña,
oraindik ixilik...
seaska ugeletik
aittittek eraginda
begiak loturik.

LO ZORIETAN

Ipar ta egoalde
bien artetik dator
aize ego meia;
lurra Iegorrik dago
eguzki ta aizez jota
errukigarria.

Zugatzak zinburuan...
aizea zarataka
oro ilduratzen;
lurrealde ain ederra
ixil, minduta dago
neke, miñak artzen.

Eta zu, aur maitea,
putsezko goiz onetan
belarriak itxita;
lo zorietan zagoz
zeruko usaiñetan
oialez batuta...!

LOTAN

Olerkiaren garrez
igon neban mendira
udabarri goizez;
ez zan egun zoria,
mendidiak nenkusan
aizearen miñez.

Alaitasun bagea,
zelaiak otz-dardaraz,
orleia minduta;
izadi ederrean
goiz urratse samiña
aizez zaurituta.

Seaskan dago aurra
obe lo ein ta azi
izadi burrukan;
gero zabaldukoituk
burua ta biotza
ekaitz amaieran.

MERTXIKA

Ermita magalean
bizi nairik zakusdaz
mertxika lorea;
borondate on dozu
zure izate oroz
edertzen zelaia.

Aizea dabil gogor
erruki bagekoa
neke ta lorretan;
lur oro gogorturik
ikats legor antzean
aldatz erpiñetan.

Mertxika lore more,
zure gurari dana
egaz dagerzkuzu;
aizeak xurgatu dau
bearrezko ezoa
ta il bear dozu.

AIZEA

Larri dakust guztia,
izadia negarrez
biotza minduta;
begiratu mendira
negu itzala dago
lurrean sartuta.

Nungo zulotik zatoz
ala itxas zabalak
bialdu al zaitu...
arkaitz, mendi ta arru
gorrotoaren orruz
ez gaizueez austu.

Solo zabaleko lur,
altsuan daukak aurra,
erraietakoa;
txikia lotan, jagok
ez jok asmetan ezer...
mutil gizajoa.

LEGOR

Ene udabarria...!
Iñoiz ez lez zakusdaz
miñezko gorria;
maiatzeko giroa
nora joan da iges
tamalez betia...?

Danau dakust galduta,
ibaiak legortuten
iturriak antsu;
lurra ondatzen doa
gibealeko gaisoaz
ori ta mirri tsu.

Seaskako mutilla,
uskerizko au rtxoa
lo egik sendoro;
odei barri sorkeran
urak etorrikoituk
iregan maitero.

IKUSI

Izadi opa roak
dana zabal zabalik,
ederra darlo;
berez emonkorra da
arri, zugatz, burdiña
baita arrollo;

Itxasaldetik dator,
laiño baltza sendotzen
mendi gaillurrean;
aiz errukigabeak
izpitu dauz kai ñoak
ortzi zabalean.

Maiatzeko aurtxoa,
noz ikusiko dituk
zelai orlegiak;
noz entzungo eteituk
trumoien dardar otsak
ta abesti alaiak...?

LIORRA

Mendi egian nago
gorputsez eta gogoz
ederraren antziz;
baiña aize liorrak
il duratuta daukaz
lurak maltzurkeriz.

Gol ertzetik beraño
zigor usain dario
lur arpegiari;
mendi egalak minkaitz,
arru aldeak larri,
oro errukarri.

Lurraren barne erraiak
arri biurtu dira
legorrez ta aizez;
aurrak ez dau ikusten
ez biotzak sentitzen...
ein lo zorionez.

LO

Odei EGALARIAK
urdin zear doazi
legor ta igesi;
izadia begira
ain arro, ikusirik
samiñez, miretsi.

Itxasoa aserre da,
Lurrak ez dau bustirik
aizez kizkorturik;
zugatzak ez ezorik,
su-egurra dirudi
oro murrizturik.

Landazuri aldea,
beren bakardadean,
erdi-illik dago;
bizitza gurin billa
dabil olerkaria
ta dana dakus lo.

ODEI

Bedeinkatua bedi
datorren on guztia
ortzetik lurrera;
itxasoak zabaldu
ta odeiak bialdu dauz
goiko bobedara.

Odeien miazketa
asarre barik ein da
ortzi zabalean;
danak alkartu dira
ta gogor, diardue
bedeinkapenetan.

Lurra ortzira adi
besoak zabal zabal,
biotzez pozturik;
odei bedeinkatuak
lanera datozenak
errukiz beterik.

JARIOKA

Itxas barrutik dator
gora gora odeia.
urak bultzaturik;
gero ta baltzago
geroz ta aundiago
txispaz indarturik.

Mendi goira eldu da
jaun ta jabe nagusi
la i ñoz ko abotsa;
tximist gorriak dardar
odei artean zear
trumoi garrototsa.

Au dok eurizko jasa...!
lurra errai zabalik
Iaiñoei agurka;
betor bizigarria
ama-lur indartzera
euri jarioka.

POZAREN

Amaren intzíriaz
euri ikerraldia
eldu da lurrera;
itxasoak, oparo,
joan dira zerura
goiko gaillurrera.

Lañoak esanean
apal, bota ta bota
gozatsu euria;
izadi ta gizadi
biak itxaropentsu,
artuten grazia.

Itxasoari agur
Egi l leari esker
ainbeste gauz eder;
atsedenez dakusdaz
pozaren zoramenez
zelai eta bazter.

ATSEDENEZ

Gizadia lo egon
indar barriak artzen
bizitza **gisara**;
gau illuna **itzarrik**,
oparo ta **maiteki**
lurrera begira;

Ortzian tronpet otra
ta mendi zear dator
odeien negarra;
ez zan **samiñzkoa**
eskar utsez etorren...
on egin bearra.

Izaditar guztiak
zugatz, bedar, **lirio**
gauaren menpean;
bizi **mamiña** artzen
laiñozko atsedenez
euri **gozopean**.

ORTZI ALDEA

Arrats-bera illuna
euri itxaropena
tximisten artean;
lo giro atsegiña
trumoi euri zarataz
oe epelean.

Justuriz argitu zan
ortzi alde guztia
izarrak osturik;
uraren zaratea
bakarrik entzuten zan
ogi biurturik.

Arruetako urak
(auetan batu dira
alkarren pozagaz;
ibaiak suge antzo
apartsu ta saltari
itxasora doaz.

LEGORTE

Zer dakuste begiak
zelai, muru ta mendi
kedar biurturik;
ainbeste euri eder
utsean geraturik
onik ein ezinik...?

Egarri naz egarri...
mendien alaraua
entzuten da larri;
biotza daukat legor
diño zelai bedarrak,
bizitz penagarri.

Mokillak, gogor, dagoz
arri biurtu nairik
ez ba-da euririk;
zu itxaso, noz arte
izango zara etsai
lurra gorrotaurik...?

AURRA

Eguzki dizdizetan
baratzean lorea
morgil ta urrea;
mutil jaio-barria
lo zorroetan datza
potxolo maitea.

Landara magalean
larros azala lertzen,
ain da maitegarri;
umearen begiak
argiagaz izletan
biotz zoragarri.

Amaren asmoetan
milla galdera dabiltz
umeari buruz;
aurrak ezin erantzun
izketan ez daki-ta
beraren aburuz.

UXARKA

Umearen gasea
jaiotzatik datorren
bizitz lege zarra;
uxarka billatu dau
seme begi **zurragaz**
amaren **bularra**.

Altzoaren gozoa...
larrosaren eztia
amari **darlo**;
loreak zugatzari
eta amari aurrak
ugatz mixten dio.

Miña ixilik dauka
begi **argiz** izketan
alkarri begira;
amaren maitasuna
seme **samurtasunaz**
biotz bat ein dira.

UME

Kumatxoari agur...
Nozbait eltzen danean
anai barria...
zuretzat izten ditut
burusi, burukoa
ta oial zuria.

Oi ze atsegin diran
eguzki ta aizea
edozein zelaitan;
nire poz aundiena
lagunekin jolastu
goiz argi eztitan.

Odol bero garbia
larrosaren ezoa
ezpan gorrietan;
zer egon lei galdurik
baratzeko bizitzan
udalen goizetan...?

BIOTZ SUA

Bizia itsu itsu
odolean bultzaka
irakitan dauka;
suzko garra dirudi
izarrari ostuta
oro dardaraka.

Ume arteko garrak
mendi sua dirudi
aize bultzadetan;
geldirik ezin egon
suzko mendia legez
aldatz igerretan.

Gau illuna ba-dator,
jolasez asetuta,
loak makurturik;
oial zurizko oian
gorputza arri antzo
begiak itxirik.

ZORDUN

Egun barria dator...
Ametsa geroago
eta sutsuago;
ez-jakiña zer ete
guztia amets utsa
su eta garrago.

Osasuna ba-doa
arto eta taloaz
gorputzez morgiltzen;
alan udabarrian
larrosaren pipittak
eguzkiz mardultzen.

Abarkak urratuta,
praka zarrak zulodun
aizeak dau lagun;
sasi arteko larra
etxerantza daroa
jolasaren zordun.

KOSKOR

Mutil koskor urduri
irriparra jariok
ire begiari;
zer daukak biotz ortan...?
ik oraindik ez jakin
zerk aukan dardara.

Odola dok gorria
larrosa gorri antzo
baratza erdian;
bizia azten ago
lubarriko lorea
dagon lez aidian.

Ez az pi losopari ...
ez az ertilaria
jisajo aundia;
baso ondoan jaio az
beti aritz ametsez
ire Euskalerria.

Agoa ta jolasa
ire amets **bakanak**
bizitzaren legez;
artepean txoriak
errekan amorraiñak
beti, ire iges.

Aunditzen nazanean
zuen errukarria
arrain ta txoria;
uretan jarriko dot
ar **gorriaz** amua
zuen janaria.

Trumoia **entzukan**
urak **poztuko** dira
saltari ibaian;
angula bigurria
norantza ete oa
ur-loi **galzorian...**

Ogearing gozoa
asmetan dau gorputzak
illun-**abarrean**;
osasun ta gosea
alkarrekin **dabiltzaz**
laguntasunean.

Ametsezko gabea
otza eta illuna
lo **eragi** Hea;
odei **baltzak dardaraz**
txinparta **gorrietan...**
eriotz urrea.

Mutil **koskorra** pozez,
gero ta barrurago
ojal gozopean;
datozela tximistak,
suzituko bai **dira**
tellatu gaiñean.

TXIKI

Oi nire ezer eza...
burua lo-zorroan
nekezka argitzen;
lorea baratzean
eguzki izpian
ariñago zurtzen.

Jolasaren gogo
bizi da egokiro
odol gorrietan;
lenen bizia bear
ezoa loretan lez
usain lurrinetan.

Ibili, jun etorri
aizearen egoak
azurriak iduri;
esna adi, adimen,
lo-zorro orretatik
ta so argiari.

LASTER

Goizetik gaberaíño
ezin egon geldirik
aize puts antzera;
txoriak sasietan
nasai doaz egalez
euren gurarira.

Zozo, bidegarroak
ez dauke bildurrik
zugatz adarretan;
ume jolaslariak
ez bait dauka arririk
txarkeri bidetan.

Biotzaren gogoa
larrosa gorri bat lez
odoletan dago;
lorea ta odola
biak erne-miñetan
laster zabaltzeko.

BIZTUKO

Ume **jolasak** dira
txipli txapla uretan...
gogoa atsegin;
errittak alkarrekin
nork geiago zapaldu
ur **pozuaren** gain.

Abarka ta **galtzerdi**
musikea etxean
soñuaz kantari;
egunero **bustirik**,
egunero negarra
jausten begiari.

Aro **politak** dira
eguzkia goietan,
ura **zuloetan**;
gogoz bi **ztu** ko dira
lora zuri barriak
sagar **adarretan**.

DARDAREA

Ba doa koskonduten,
azur, mamin ta argi
giza irudia;
atean txakur zuri,
baratzen tarros gorria...
baserri maitia.

Loretan lore eder
baserriko semea
bruz zarrez jantzia;
mendian ariztia,
soloetan garia
dau amestegia.

Orma gainik orma gain
azkar doa igesi
zubilanderea;
muti Ilaren burua,
noz azkartuko ete
zure dardarea...?

ITZ JAKITURIA

Azten doa mutilla,
gosea kendu nairik,
txiro, baserrian;
idia jango Zeuke
ta esnea mugarriz
ainbesten artean.

Baserri inguruak
zerbait esaten dautso
biotz barrenera;
aurrez aur artepea
endaren irudia
etorkizunera.

Aurrez aur zubi zarra
biribil ta polita
asaben bidea;
antxe kokatu eben
gure asaba zarrak
itz jakituria.

TXINPART

Ba doa konturatzen
baso-zelai zer diran
baserri bidean;
mendian **zugadiak**
aritz **lerden zuriak**
deika biotzean.

Izadi Egillea
ez egoan aztuta
mendi **gallurragaz**;
arkaitzak zuri zuri
ederra **eriela**
argi **izpiagaz**.

Aldatzak bera dator
zidarrezko **aparrez**
latsa indartsua;
zaldi **perrotsa** bai-litz
arrietan **ataraz**
txinpart eta sua.

MUTILLA IZKETAN

Erleak lorea lez...
txoriak zugatza nai,
arrak lurra maite;
bizkortzen doan seiñek
lur dana ederrezten
ezin esan beste.

Beiak bedarra gozo,
auntza sasian dabil,
bildotsa erropan;
lurraren irudia
aberez apaindurik
dantzan dau gogoan.

Lurraren arpegia,
aran zabal orleiak,
ibai bigurria;
izketan dabilkioz
mutiltzen doanari...
lurra ain da maitia...!

MURR1TUTA

Sendia aundia da
itxaso arei antzo
neska ta mutillak;
lurrak, nun, ete dira
ainbeste besorentzat
landuteko saillak.

Gosea, beti, deika,
biziaren legea,
ziur ta gogorra;
egunsentian jaiki
ta atxurrez burrukan
bizitz baserritarra.

Eguzkia sorkaldean
geldi geldo doa
itxaso azpira;
guraso nekatuak
indarrak murrituta
ba-doaz etxera.

ETXEAN

Etxera eldu eta
ez egoan zinerik
eskaratz zarrean;
beiak kortan orroa,
gosearen marrua,
sabela utsean.

Bedarrik ete dago
ebateko moduan...
lenen ardurea;
igetaia zorroztu,
zarea artuz doa
ki rki l len kantura.

Lengo lepo biguna
nekearen nekeaz
ausi bearrean;
igetai galtzairuak
nekez lan egin gura
mune bazterrean.

EMAILLEA

Nekeak latzak dira
atxur ta lala **puntan**
izerdiz bustirik;
zegaz bardindu neike
aita ta amaren biotza
lanean **urturik...?**

Aitaren **irriparrea**
amaren maitasuna
eguzki bi dira;
umearen biotza
lorearen antzera
zabalduz **argira.**

Aita da gidaria,
ama da **ontasuna,**
semea urrea;
sendia da baratza
larros gorritz betea
bizi **emoillea.**

AITAREN POZEAN

Mai inguruan asko...
dana umeteria,
zarat iskanbilla;
Euzkadi abes-batza,
an, sortu eitekean
duban entzun ala.

Soloko arnariak...
labako ogi zuri
ziran janariak;
indarra erioen
indiar ta sagarrak
odolez gorriak.

Bazkari abes-batza,
gero ta indartsuago,
eskaratz zarrean;
musuak, gorri gorri,
mallukien antzera
aitaren pozean.

ZORIONTSUA

Mutil **koskor** aroa
negua izten doa
gi Itzaren azpian;
indar barriak datoz
aritz azalean lez
udalen **goizian**.

Mutil irudimena
goizian esnatzen da
suaren **garragaz**;
eguzkia leioan
poza **dakarkiola**
izar argi agaz.

Aupa, gora **oiaiak...**
eskerrak Jainkoari
gau ederra gaitik;
zoriontsua dator
argiaren izarra
goi **urdiñetatik**.

BIZTURIK

Udabarri aseran
bizia sortzen doa
indarren artean;
mendi aritzen antzo
azal zuri ederra
gorputz azalean.

Begiak zorrotz doaz
zelai orleiak zear
odol dardaretan;
izadi oro dago
gorputzari laztanka
argi urratzetan.

Lurra opaka dago
biziaren guriña
loraz zuritirik;
gizadiko baratza
giza udabarrian
odolez bizturik.

ESKOLA BIDEAN

Biziak aldatz gora
bide barriak daukaz
emendik aurrera;
sei maiatzeko lora
sagastietan zear
azkar joan dira.

Eskolako zorroa,
len ametsa zana,
oin, josita daga;
argitasuna bear,
loreak eguzki lez,
ikasiz beiñago.

Eguzkiak urratzen
laiño zarrak mendian
euri ondorean;
jakituriak austen
gizonaren illunak
eskola bidean.

ORRI AZPITIK

Baserriko etxea
amets askoren kabi,
beti izan zara;
gaur, zabaldu dautsazuz
etxeko semeari
ateak mundura.

Mutil aundiak datoz
mendietatik bera
ur jauzi antzera;
zenbat ete dakiten
euren abots zoliak
agertzen itzera.

Lenengoz jarri nintzan
jakituri aurrean,
ixil ta apalik;
nik ez nekien zer zan
abezsaren ardatza
gain orri azpitik.

ARGI BILLA

Mutillak euskaldunak,
erri onen semeak
ziran jaiotzatik;
Euskalerriko landan
loreak euskaldunak
sustrai barrenetik.

Atzerritar maisua
izkuntza ezbardiñez
Zamoran jaioa;
atzerriko landarak
ez dau mendurik artzen...
badezpadakoa.

Izkiak ezagutzen
urrearen bearra
izar billa irudi;
udalen asieran
larrosaren pipittak
argirantz doazi.

ADARRENTZAT

Arazo aundi ontan
itzaren jarioa
aztergarria da;
nortzuk dira oiñarri,
etxearen zimendu
itzak eraginda...?

Erriaren semeak
ez al eskubiderik
beren lur gaiñean...?
landan dagoz zugatzak
ez ete dau eskatzen
aizea goizian...?

Zugatzak mendietan
lur giro ona dauka
beren sustraientzat;
aro txarrean ez dau
lore ta ez bizirik
beren adarretan.

ARDURAK

Eskolara joan-ta
beti, erbeste giroz
aurkitzen mutilla;
aritzen usain i k ez,
maisua^{ren} izkuntzan,
kanportar makilla.

Nun zagoz Euskal^{erri},
burua laiñotuta
etsaien azpian...?
ez al zara errudun
maisua lana itzita
etsaien menpian...?

Nun ziran aldi a^{rtan}
euskaldunen ardurak
biotz begietan...!
ainbeste neska mutil
argiz, ondo, jantziak
baserri lanetan...

BERTAN BERA

Enda ain **leiñergia...**
zerk eukan **lokartuta**
arazo onetan?
euskaldun gizadian
izarrak bear ziran
erriko **bidetan.**

Aldi **samingarria...!**
Kukuak ez ekian
euskeraz kantetan;
albistalari danak
atzerriko usaiñez
euzko **ondamenetan.**

Jauntzat artuten ziran
"don" / izena **ipiniz**
baltzunga guztiak;
ta izarrak etxean
bertan bera, **itzirik**
euzkotar larriak.

ITZITA

Ugerdun kapelua,
arpegi ori-baltza,
biotz errea;
iru **titulu** eder
maisua izateko
beste zer **obea...?**

Miña, **erretz**, luzea
edozertarako gai
jardun bideetan;
txoriak lez aidean
iturrizko jario
txorrotxíoetan.

Guíe asaba onak
beste mundu batean
lurrari etsita;
jakituri bidea
bibotedun gizonei
eskuan itzita.

ARANTZAZ JOSIRIK

Urteak aurrerantza,
buruak argi bage
illuntasunian;
sasietan lar baltza
ez da indartsuago
euria danean.

Etxe lander **gisara**
soloan bearrean
beien **itxaurleri;**
biziak au eskatzen
baserriko **giroan**
jakituriari.

Eskola eta lurra
alkarkidetu ziran
ta burua utsik;
larrak artuko ete
mutillaren barrua
arantzaz josirik...?

OPARI EGIÑEZ

Udan, eder basoa
aizez **eta** argiaz,
gozo, igurtziriki;
iadanik beiak larran
len eguzki sorreran
pozez zoraturik.

Barruko poz irriak
aragia ler **bear**
murrusa otsetan;
odola dabil dardar
jala **ospatu nairik**
mendi, basoetan.

Lurra zoramenetan
ezo **ta** argiaren
indar maitekorrez;
eskar jarioz **dago**
basoetan **larrea**
opari egiñez.

NARRU GAIN

Zenbat zorion ordu
bei ta mutillarentzat
uda goiz ederrez;
bedarrak gora gora,
bere bizia opa
janari egiñez.

Agiñak, mauka mauka,
eten gabe lanean
bedarrari ekin;
bizitza egarria
odolean sentitzen
urdail lanarekin.

Ekiñaldi ederra,
eztegua izan da
gaur, gure basoan;
aritzaren keizean
atsedena sentitzen
narru gain osoan.

ZER DAUKA?

Patxara ederrean
nai aiña jan ondoren
beiak ausnarrean;
etzunda zabal zabal,
basoko bakearen
gozotasunean.

Euskalerra giarra
aritz gerrian datza
sendo, lerdan, tinko;
euzko baserri beiak
aritz keizia maite
bizia indartzeko.

Zer dauka aritz tantaiak...
zer dauka keriziak...
zer dau lur babesak...?
erriaren usaiña...?
atsedenaren poz...?
maitasun besoak...?

BEDAR GOZOETAN

Zugatz orri orleiak
altzoan artu dabe
basoko itzala;
zeru oia dirudi
arizti zabal danak
itza dariola.

Begi begira dago
alderdi danetara
beien jagolea;
basoaren ederrez
geiago ezin pustuz
dauka arnasea.

Arrio eta txuri,
bota, bertan, nagiak
aritz sustraietan;
izadi eta beiak
lagun izan daitezcan
bedar gozoetan.

EUZKOAK ESNATZEN

Bei jagole mutilla
izaditiar ein da
eder-zale miñez;
arkaitzak, ur saltoak,
danak apar otsetan
ibai bera iges.

Lizar zuriak geldi
ur ezotasu nean,
gogoz, sustraiturik;
bendabaletan, gogor,
ekaitzei eup egiñez
ernai bildur barik.

Tantairik ederrenak
zeruetara doaz
senda eta zuzen;
endaren irudia
biotzez daroala
euzkoak esnatzen.

OIN LIRAIÑEZ

Akulu baltza artuta
zelai barrira doa
beien zaintzaillea;
lengo euri ondoren
dana dago orlegi
indarrez betea.

Beiak saltari dabiltz
eguzkiz zoratuta
bedarraren pozez;
gaur, ospatuten dabe
txuriren eztegua
jan ta edanez.

Zoriontasuna da
zelaiaren zabala
udabarri goizez;
alabeak amari
aurrezkua dagitso
oin bizkor liraiñez.

BEDARREN ERARA

Jai dirudi zelaian
argiz, giroz ta aizez
egunsenti mian;
jan eta jan dabiltzaz
ta mokau gozoena
larre bizkarrian.

Goi urdiña pozgarri...
zidar itza darlo
egoetan bera;
zabala da zerua
zelaiko ganbarea
naigarri onbera.

Egaz doa aizea
izarrak bialdua
ortzetik lurrera;
zelaian lamin dantza
orlegizko soiñekuz
bedarren erara.

BASERRIA

Mutil koskor oraindik,
bederatzi urteko
maietzaren lore;
eskola ondorean
soloan da zeregin
ezin esan beste.

Baserrietako lanak
apalak eta gogorrak
beti izan dira;
jende gaizki eziak
burle egin dautsue
zapalduz azpira.

Zuen gizontasuna,
zuen izkuntz ederra
itz arrigarria;
euzko lurean egi,
endaren eusgarria
dogu baserria.

ZERUTAR BIZIA

Mokil austen soloan
eguzkizko galdetan
beroaren sutan;
guraso ta semeak
izerdi patsetan urtzen
goiz ta arratsetan.

Ordu gogor aretan
gorputz nekatuentzat
ez zan errukirik;
a zan Jainkozko itz
izerdiz jango dozu
ondo, nekaturik.

Izertik izarrera
atxurtu zendun lurra
lore biurturik;
loreak arnaria,
arnariak frutua
zuretzat bizirik.

ALKARREN AUZOAN

Bei jagoten egoan,
arrats-beran mutilla
basoko zelaian;
giroa atsegiña
naita laino izpia
egondu mendian.

Guztia zan olerki
arkaitzaren zuria
ta mendi orleia;
beiak bedar tiraka
eguzki epeletan
zorion bizia.

Mendiak gora-goraka
alkarrerri begira
izketa gozoa n;
iñongo gorrotorik
ez begi biotzetan
alkarren auzoan.

EGUZKI

Lerdiaren ondoan
dana egon bakezko
zelai orlegian;
mutilla ametsetan
gozotasun artean
bizkar guenian.

Azken orduan dago
arrats-bera maitia
ixiltasunian;
ardi eta bildotsak
arran ots samurretan
eskorta zarrian.

Urre-odol margotan
ortzez zearka doa
itxaspera sartzen;
nor zara, zu, ain eder
urdiñean ibiliz
lur baltza zoratzen...

MAM IÑ ETAN

Gaurko giro barria
egunsentiak dakar
bere magalean;
izar danak ba-doaz
euren abi gozora
gabaren ostean.

Zelaiak zidarturik,
baratzarik onena
bitxiz apaindurik;
eguzkiz urtzen doa
terralaren zuria
argiz orrazturik.

Izadi oro pozik,
irriparrez goizian
maitasun itzetan;
bere barru guztia
azalean loretuz
bazter mam i ñetan.

AZALTZEN

Baserriko zelaia
eguzkira begira
amets biurtu da;
iturria jarioz
egarri kentzen dabil
onak eraginda;

Aittitte buru zuri
ta emazte Mainttoni
izketa zarrean;
ainbeste maietz lorek
agurtu zituezan
euren batzarrean.

Izadiak, kontuak,
udabarri lorezkuek
esaten eutsezan;
aittite ta amarrak
barru astu ntasu nak
azaltzen ebezan.

AISKIDEAK

Aranburu gailena,
dorrea dirudizu
zelai batzarrean;
gizandien antzera
nabarmenduten zara
ibarren artean.

Sendiaren usaiña
sendo asmetan dozu
mendi bizkarrean;
Euskalerriko oiña
mendien tinkatu zan
basetxe zarrean.

Izaera leiñargi
ta izkuntza jatorra
sortu zitun lurrak;
ta zuk agurtzen dozuz
mendi, eta zelaia
zure aiskideak.

DEIA

Giza udabarria
galdezka etorkidan
soiñu barrietan;
biziak zer nai ete
etorkizun bidean
nire jardunetan...?

Mutil koskor txikia
arazo ain aundiaz
buztartu ete lei...?
abadetzaren deia
gizon otseintzarako
ez ete larregi...?

Munduko txiki billa
ebillan Jaungoikoa
mirari iduri;
zerua berbera zan
otsein txikien bidez
lurraren gidari.

NORA

Ausarkeri gogorra...
beiak kortan itzita
norat oa Paulin...?
ikastegiko itza
ta mutil ez-jakiña
nik buztartu ezin...

Ametsa zirudian...
gorriak eta izarrak
nenkusan nunnaitan;
illunak ta argiak
burruka sortu eben
nire almenetan.

Agur igetai, atxur,
agur mundu aizea
zelaietan zear;
egi barria nai dot
ene baitan ikusi
gizonen otseintzan.

BILLA

Lurra negarrez dago...
gaixo, nora ezean,
illunpeak jota;
giza buru-biotzak
ustelak zauritu dauz
nauskeriz erreta.

Kezkaz neukan barrena
zuzengabekeria
goitzen joateaz;
egia, non, ete da;
lurraren gatz bizia
erne eraziaz...?

Baratzara jun nintzan,
mutil koskor sasoian
lorearen billa;
larros gorria ez zan
maite neban bitxia:
goi amets mutilla.

PISTOLARIAK

Burruka nenkusan; ots!
Min artzen zorigaitzez,
ume biotzean;
ene erri maltea...
nork ondatu nai zaitu
gizontasunean...?

Nundik datoz etsaiak...?
Zer nal dau arerioak
azerikerietan...?
Toldope gerizpean,
patxarrari ekiñez
erri konponketan...?

Euzko erri maltea,
zure edertasuna
egon gal-zorian;
eta pistolariak
ekarri eutsuezan
autezkunde goizian.

ONDAMEN

Noraiño doa eltzen
aginpide gogoia
norberekeri ra... ?
azeriak ebiltzan
ardien artaldean
euren griñetara.

Arpegi eder barrez,
egiaren irudiz
maltzurkerietan;
jaioterri maitea,
ezpatak urratu nau
zoritxar onetan.

Nundik dabil zentzuna,
Etxebarri mingarri,
txakurzuloetan...?
Bideak galdu al dauz
erriaren bizitzak
ondamen latzetan...?

EUSKERA

Maitenetan bat zara,
biotzeko urrea
jaioterri maite;
zuri zor dautzut itza
Bizkai lora bikaiña,
pozez ase arte.

Zeru urdin argia
daroazu itzetan
eguzki urrea;
egaz dabil burua
loretan erlea lez
ederra batuaz.

Baserri aintzatsua,
zenbat eder zor dautzu
euskera maitiak...!
munetako loreak
izkuntza biur dozuz
jakintzaz betiak.

EDERRESPEN

Baratza bat dirudi
maitati jatan lurrak
udalen goizean;
biotzak ezin etsi
zelaiko itzalai
argi printzapean.

Aizea egaz doa,
iñork ikusi barik
arnasa barrian;
birikiak antzizka
txoriegada pozez
biraka gorrian.

Begi niniak argiz,
irriparrez gaiñezka,
izarrak iduri;
osasanaren garra
gorputzak gozartu dau
odolez urduri.

GOIZERO

Mendiaren ederra,
asper bageko itza,
goizero sortzen zan;
dantzan ebiltzan goian
urrezko ezteguak
izadi baratzen.

Izar itzal eziñak
bildurrez doaz iges
eguzki aurrean;
ortza dago eztitsu
andre gai baten antzo
ezkontza goizean.

Itz jariotan dagoz
arkaitzak gallurretan
pozaren kilimaz;
gure mendiak dabiltz
euskal arima sortzen
gizon jakituriaz.

ZELAIA

Landa orlei gozo
eguzkira zabalik,
a zan atsegiña...!
berezkoa arentzat
ama onaren antzo
bizitza sor-miña.

Azien oatzea
argiak eztitu dau
biotz maite beroz;
landaren orlegia
neska jantzi alaiaz
bizi da pozkiroz.

Euzko gizona adi
zelaiko sor-miñari
euri gozoetan;
antxe, oartu eban
zelaiaren ederra
euskeraz izketan.

BARATZA

Arrosa ta kabel i n
txanbelin dabil aizez
larrosa gorria;
erlea datorkio
usainka ta zirika
xurgatzen bizia.

Egunsenti goizian
lurra ezo egoan
otz atsegiñetan;
landareak lurrari
erleak loreari
musu orrietan.

Arbasoak begira
baratza zabalera
ederraren miñez;
euskeraz dabiltz oro
izkuntza ederragotzen
landaraz ta lorez.

ZUGATZA

Baratz alderdi goian
lerden dakust zugatza
ibaira begira;
eguzkia ta ura
kidekorik maitenak
laztantzen pozera.

Zugatzaren adarra,
orri barrien miñez
begi ninietan;
laster dator lorea
amaren sabeletik
aize gozoeta n .

Euskaldun zan zelaia,
euzkotarrak loreak
orlei, zuri, gorri;
Euzko semeak argi
sortu eben izkuntza
lore zoragarri.

ARKAITZ

Mendi goian arkaitza
arranoen kabia
edur zurietan;
lurraren ogasunak
sortu dautsez erraiak
itz gogorrenetan.

Urdiña amestu dau
zabalegi guztian
neskutsez jantzirik;
izarrak maite ditu
gabeko ortz garbian
itzez zoraturik.

Euskaldun arbasoak,
menditik artu eben
itzaren argia;
biotzez josi eben
jakintzak sortu leiken
izkuntz leiñargia.

BASOA

Baso maitegarria,
odolaren sor-leku
ta j u berezia;
arri zarrak burrukan
maldan bera doazi;
itz arrigrria.

Gau baltzean illunak
iruntzi nai dau lurra
odei gogorkeriz;
trumoi dardar oiñeztu,
nire baso etsaiak
ortz aginka dabiltz.

Arbasoen argia
basetxean egoan
izadi zaindari;
odei, trumoi, oiñeztuz
sortuko eben itza
euzkoen gidari.

Erribide nausia
dirudi zabal zabal
bake zoragarriz;
sarats, sagar, keriza,
ibai ezoetan
eztaietan dabiltz.

Udabarria deika,
kimu barriak sortzen
bizitz ler zorian;
txoriak orri **billa**
abia estaltzeko
umatze barrian.

Euzko baserritarra
abestiak entzuten
adarraren puntan;
izkuntza ederrena
legez asmetan doa
ibai urdiñetan.

Maitegarria zara
eguna urratzean,
ibaiaren giña;
eguzkizko printzetan
arraiñak dantzan dabiltz...
alkarren mait miña.

(baia, lirain, doa
neskatil urdin jantziz
baratz tartetatik;
ontzi zurian doa
urretxindor kantari
aizeak pozturik.

Euzkotar arbasoak
ibai ondoak landuz
euskera morgi ltzen;
landara ta-arri bitxi
zugatz eta loreak
euskeraz mintzatzen.

U R ERTZA

Ibaia, lotan, dago...
Ortzian izar ñirñir
argizko dantzea;
ur danak ixil, ixil,
bakearen kantari,
lur ezkotegia.

Loak amaitzen doaz,
gorputz danak atsedean
zugatz ta loretan;
izadia agurka
eguzki urreari
lenengo printzetan.

Euzko baserritarrak
uraren magalean
dauka sorterrria;
euskeraz dabil itzez
elerik ederrenaz
sortuz aberria.

IBAIONDO

Ibaiondon lorea
neska zuriz jantzia
izaría dirudi;
ederraren ederrez
zoriki dau biotza,
aingeru irudi.

Zidarrezko abotsa
txirulirulietan
urretxindor antzo;
abesbatza sortu da
izki gogoz egiña
ibaiko loratxo.

Uraren dizdizera,
bizien amesgarri,
egaz doa u r d i n;
basoko euskaldunak
lore, bitxi, abestiz
euskeraz itz egin.

SORTZEN

Zugatza urondoan
orri barriz jantzi da
praka orleiekin;
aurrezkulari antzo
tinko ta lirain dago
seme alabekin.

Bei, zaldi ta ardiak
murrusa, irrintzi ta be...
abere izketan;
nai aiña bedar jan da
erremeria dago
ibaiko plazetan.

Danak dira euskaldun
odolaren jatorriz
Aberri miñetan;
euskera sortzen dabiltz,
arribitxizko itza
ibaiondoetan.

JASO

Egun zoragarria da.
Eguzkiak bota dauz
bere odol garrak;
mendiak, gorri, dagoz
beroz erre bearrean
oyan ta gallurak.

Ardiak jatxi dira
garrak erre bearrez
ibai uretara;
edurtza baten antzo
danak burua gora
batera batera.

Artalde euzkotarra...
Aitorren izkuntza
darabil miñetan;
ur gaiñaren dizdira
euzko lora biurtu
euskera beiñetan.

ITZ

Euriaren ederra...
Oparo maite dozu
ibaiondon lurra;
mendiak bera datoz
odei baltzen urratzak
zeruen negarra.

Arkaitzak parrez dagoz
aldatz bera joanik
eurizko grazia;
bitargi gozoetan
atseden artzen lurrak...
ezozko bizia.

Arkaitz, mendi ta arru
alkar maitez begira
itz gozoetara;
danak euskal aditza
bitxi biurtzen doaz
euren naietara.

ETSAI

Trumoiak dardar otra,
goi ganbara nausia
asarez baltzitu;
guda sortu da goian
Lubeltz da gidaria
etsai amorratu.

Suak sua darlo
oiñeztu gorrietan
dardara ilkorrez;
ekaitzak bota ditu
zartada gogorrenak
ume ilbearrez.

Ekaitzak, eriotzak...
dardaraz mintza dira
Aitorren izkuntzan;
ez eben ezagutzen
mintzai obeagorik
ibaiko baratzan.

EDUR

Negu egun edurra,
baltza eta zuria
mosuka ibaian;
etsaiak ete dira
edur otzaren ura
ta lurra batian...?

Lurrak ura egarri...
edurretan sortzen dan
mistela gozoa;
edurra eta lurra
odol bardiñen ume:
len ezkontzakoa.

Anaitasun orretan
sendi osoa eder
euskal arloetan;
euskera da mintzaira
ibaiaren aitorrez
baratz odeietan.

EGAZ

Ibaiondo lorea...
Neguaren euriak
udabarrian par;
zugatzen gain guztiak
edurrak loratu dauz,
euriz, eziltzear.

Gaba igeska doa
ez-ezagun mundura
eskutu artean;
argi bizia dator
eguzkiak bultzatuz
egazka aidean.

Indar guztiak datoz
Lore zuri ta gorriz
apainki jantzirik;
izkuntza bat dakarre
soñu berezietan
euskeraz josirik.

LOREZ

Lorez jantzi da lurra,
zugatzak edur zuriz,
negu baltza il da;
illunaren ondoren
negar mal korik ez ein,
baratza maitia.

Mendi, muño ta zelai,
lorearen eztiatz
bete dira lurrak;
erle gorriak dabiltz,
zorroak urre gorriz,
aidetuz egalak.

Danak dira euskaldun
mendi, lore ta erle
anaitasunian;
euskera sortzen dabiltz
ain izkuntza bikaiña
edertasunian.

SEMEAK

Ibai ondoan zear,
parrez, dabil argia
biotzen pozgarri;
zidarrezko zelaia
eguzkizko printzetan
bizitz amesgarri'

Egunsenti goizian
urretxindor kantia
zugatzaren puntan;
izadia entzuten
urretxindor jaunari
euzkotar soñutan.

Izadi, txori, lagun,
odolez eta gogoz
euskera zaleak;
munduko izkuntz bakan,
baratzan sor zaitue
euzkotar semeak.

GURE BASAMORTUA

Basamortu garaian
abaroa zan dana,
otea ta lurra;
gizon lan tresnarík ez,
illuna eta eza
aiskide bakarra.

Burua lo-zorroan
urdaillak ez parkatzen,
gosearen lera;
biziaren legea
ortzetik onuntz dator
elorretan bera.

jakituririk bage
arek ziran burrukak
len asieretan;
antxe bertan, sortu zan
izkuntz jakintsuena
euzkotar itzetan.

EUZKO BASAMORTUA

Nire basamortua,
asaba zarren bera
mendi bizkarrean;
zugatzak okertuta
urtez eta negarrez
urlo bazterrean.

Gizonak ez ekien
lurra oraindik lantzen...
bizitza larria;
itsuak itsuari
argirik ezin egin,
trentinik gabia.

Baiña euzko gizonak
odoletan eroen
euskal nortasuna;
berezkoa zan itza
arri bitxiz josia
izanik laguna.

ARANTZA

Biziaren legea,
arantzak ziran lurrez
eta gizonetan;
giza-semeak illun
ta lurra illunago
sasitza lorretan.

Sasiaren frutua
minkaitza ta legorra
urdaillaren gaiso;
txoriak otartean
basatien gisara
arrika eraso.

Bizitza gogor artan
euren barne gogoa
argitzen joiezan;
izkuntza jakituna
ager eben zelaira
larrosa antzean.

SASIETAN

Mendipeko zuloak,
illunaren kabiak,
gizonen ar-zulo;
gizon apaltasuna
leza baltzean egon
atseden eta lo.

Bu rd i ñen guda bage
baiña burruka euken
otz-illun artean;
aittite kaska zuri
illoba txikiagaz
kantari lezean.

Nor ziran gizon arek...
aldi aren semeak
leza zuloetan!!
izkuntzarik beiñena
emon eutsen l u rrari
urrezko itzetan.

LEIZETARRAK

Arri eta egurrak
sasits aundi aurrean
dabez lagungarri;
egazkinik ez euken
sasiartean oiñez
bizitz arrigarri.

Etsai errukarria,
lezarantza etorren
basoko piztia;
arrika jausiko zan
edur zuri goizian
odolez betia.

Gizon aintzatsu arek
zer euken barruetan
argiz goriturik...?
izkuntz ain leiñargia
aditz aberatsenaz
endari sorturik.!

BARDI NGABEKO A

A zainn bai sasitzea...!
Dana belarkiz dager
larra ta otea;
i kastetxe ri k bage
bizitza len oiñatzak,
gogor, zan aztea.

Berarizko odola
erabillen zaiñetan:
lurrean bakarra;
enda autatua zan
kidekorik bagea
euzko erritarra.

Basoan zan gizona
sortzez eta jatorriz
berebizikoa;
gizontasun orretan
izkuntza sortu eben
bardingabekoa.

ABERRIA

Abots aundi bat jatort,
berenez ezilkorra,
itz neurtuetan;
aizetakoa ez da,
izar batzarra egon
euzko basoetan.

Aberri maitegarri,
zeru lurreko itza,
onez, maitegarri;
lora gorri gorria
dirudizu biotzen
itz atsegingarri.

Itz ederrenen arte
maitasuna dario
ezin asperturik;
itxaso bera baiño
amultsuagoa da
printzaz urreturik.

MUGARRIAK

Aitorren lur autatua,
amets egin dot goizez
zure izatea;
sortzez zeurea zara
izar ederren antzo
semeen maitalea.

Mendiak goizez argi...
ama-semeak adi
oriei dizdizari;
Aitor dabil mendian
makil sendoz eskuan
euzko zuzendari.

Nora zoaz aizea
ibarririk ibarrera
bedarrak leguntzen...?
euzko lur ederrean
zabal eizuz egoak
mugarriak zaintzen...

MAITEA

Egiaren indarrez,
zugatzak deika dagoz:
gu euskaldunak gara;
arte, aritz ta gastain
tantairik ederrenak
amaren gisara.

Mendiak, ernai, dagoz
sustraiak sendoturik
amaren ugatzaz;
gure ama bat dogu
euzkotar Aberria
eguzki argiaz.

Loretan dago naro,
euskaldun aritz zarra
adorez betea;
seme danak begira...
zure odoldun gara
Aberri maitea.

ZAZPI LURRALDE

Zazpi lurralde eder
odol gorri gorriaz
gara Aitorrenak;
danetan gara bardin
azur eta aragi
giza euzkotarrak.

Guztiok maite dogu
sortu ginduzan lurra,
sustrai batekoa;
guztiok **anai** gara
guraso on baten
oatz berekoa.

Aitor begira dago
Euzkadi zabalera
oartz negarrak;
zugatz baten lorak lez
anai txorta eginik
nai dauz euzkotarrak.

ERRAIAK

Arrats-bera u rd i ñez
samur, dakust zelaia
guriñez betea;
ama atsa dario
arkaitz, mendi ta bedar...
euzko lur lorea.

Gure Euskalerriko
arkaitz eta oyanak
otoi biur dira;
argi, agurtzen dagoz
arrats-bera eztian
ortzera begira.

Maitasunezko itza
besterik ez dagerzku:
euzko izadia;
eguzkiaren garra
amaitzen doanean...
ai nire erraiak...!

ASKATASU N IAN

Izadi zoragarria...!
Aitorren jauregia
da Euskalerra;
í kusmen zorabioz
geldi daukat biotza;
maitasun ezta.

Oro ixilik dago,
azkenengo ardiak
agurtu zelaia;
artzaiñora ba-doa
eskortara bidean
zainduz artaldia.

Euzkadiren bizia,
askotan zatituta,
bat dago mendian;
ezti dario lurrak
amak semientzako
askatasunian.

KATEI

Aitor dabil mendian
gainik gain, arduratsu,
Euzkadira adi;
artzain ta artaldia
gizon ta gizadia
bere dauz Euzkadik.

Negarra dakus, sarri,
semeak zapalduta
okerkeripean;
bere seme jatorrak
aske nai dauz ikusi
amaren lurrean.

Guzurra gorrotu dau,
nauskeria nardatzen
burdin indarragaz;
ama ezin ikusi
etsaipean lotuta
katei ugerragaz.

EUSKALERRIARI

Izen aundiena da
gurasoen erria
seme biotzean;
izarrez goitik dago
maitasun aundiena
zeru ta lurrean.

Ortziak emon euskun
Euskalerrri osoa
gure bizigarri;
landu ta menperatu,
zuentzat egiña da
Euzkadi Aberri.

Ordu-ezkero Aitor
Euzko goian dabil
erritar gidari;
zuzentza eskatzen dau
t'erri askatasuna
Euskalerrriari.

IZKETAN

Basoan dagoz itzak:
zugatz, sasia, arri,
izadiar danak;
danon artetik doa
ur urdin luzangea
zeartuz bazterrak.

Arbasoen errian,
euskeraz, asi ziran
lubarriak sortzen;
egurrez ta makillez
lurra arrotu bear
erraiak astintzen.

Txoria agerkeran
danba arrikadea
bustanaren puntan;
ta egaz, arro, doa
zozo piko oria
bakarrik, izketan.

Arbasoen burua
asi da menperatzen
euren lur giroa;
sasiak ba-doazi
iotsatuta igesten...
oiartzun orroa.

Lan tresnarik ez egon
burua, bakarrik, uts,
zer egin galdezka;
beso abertzaliak
euren erria sortzen
ba-doaz mazuka.

Euskeraz sortu eben
mait-miñezko lurraren
bizikera latza;
euren jakituriaz
sasia biur eben
lorezko baratza.

Errien sorkundeak
leen maitasunak dira
amestu eziñak;
leoi ortzetatik at
gizonak zaindu bear
lur azur-mamiñak.

Euzko lur, nire biotz,
leizetik leizetara
ebillen gizona;
aldi bardin bagean
piztiekin burruka
gure euskalduna.

Eukena emon eben
adore ta biotza
euskaldunen itza;
bertso eder jario
dario euzko lurrak
ametsen ardatza.

ORROAKA

Gizadia sortzen egon
baso ta oyanetan
sasi izadian;
kantauri alde ontan
berarizko enda bat
euren anaidian.

Eguzki agerkeran,
oro zan ederra
arkaitz ta bedarra;
sasietan lorea
bizitz itxaropena...
ume deadarra.

Amaren abots ziña
dantzu seme maiteak
sasien artetik;
piztiak orroaka
giza aragi billa
aitzaren ostetik.

ITURMENDIETAN

Sasiak entzun eutson
odeiari il-otsa
tronpeta artean;
eguna gau biur zan
su-garrezko oiñeztuz
ausi bearrean.

Izadia negarrez,
gizadia bildurrez
tximistaren garrez;
gal-zorian bizia
otsoen txarkeriaz
iruntzi bearrez.

Aberria jaio zan
samiñak gogortuta
leza zuloetan;
euskaldunen biziak
ziñatu eban lurra
iturmendietan.

AMESLARIENTZAT

Gau gogor baltzenean
lurra egon ikaraz
etsaien bildurrez;
trumo¹ eta txinpartak
aitu eben burruka
bake irudiaz.

Gaurko¹ xiftasuna
opagarri zirudin
basamortuarentzat;
dana egoan ilda
zelai zuri eginik
ameslariantzat;

Ikara zaitez lurra,
ikaratu leizeak
edurraren aurrez;
basoidiak datoz
giza bizitza billa
goses il-bearrez.

ODOLEN ARTEAN

Lurra dana zuri zuri,
ezteguko neskatxa
ez ain edergarri;
eguzkiaren printzaz
urretu zan edurra:
itza lilluragarri.

Euskaldun gizadia
itzak sortzen dabil
edur zuriari;
bertso barriak nai dauz
ain dalako zabala
edurrezko arri;

Zabalen zabalean,
oro ixiltasuna
edur biotzean;
otsoak giza billa
leize agoan jausi
odolen artean.

LEGEAN

Amai bako zuria
bakezko irudia
edurrez jantzi da;
euzkoen Aberria
ixil ixilik, dago
edurak gainduta.

Leiza zuloan dago
Euzkadi alkartuta
ta bere Lagia;
antziñate aretan
legez ta izakeraz
sortu zan erria.

Gizadi talde bera
azur itzez bardiña
egon edurpean;
goi aldean izketan
Aitor zan zuzendari
Aberri legean.

EDUR EZOETAN

Lur gain guztia bardin,
zeruak jantziriko
soiñeko loria;
negua da zuria,
egiz arrigarria,
au da lur zoria.!

Ez dago idazkortzik,
leizea da eskola
edur zurietan;
astiro eta bakez
legeak sortzeitue
buru - biotzetan.

Erri bizia dator
leizaren biotzetik
edur egunetan;
sustraiak artu ditu
euzkotarren izkuntzak
edur ezoetan.

EDUR ARGIA

Zentzuna, itz gorena...
edurrak zuritu dau
euzkoen barrena;
argitasuna dator
eguzki pri ntzetati k
edurren zoruna.

Euzkotarren biotza
argia artzeko zai...
zuzentasun itza;
edurraren zuriaz
euzkoak alkartu dau
maitezko biotza.

Edur zuritasunez
dakus euzkotar ziñak
leizaren bazterrak;
edurraren argiaz
sortukoitu barruan
jakintza ederrak.

URTZEN

Edurrak urtzen doaz
eguzkiaren pozez
zelai orleietan;
lurmenak dagerkiguz
eta uso zuriak
uleak orrazten.

Leza zuloetatik
euskaldun gizadia
ibaira begira;
edur mendiak urtzen
ta ibaiak gizontzen
uraren arira.

Sasi danak orlegiz
gerora jantzi lorez
ibar usaiñetan;
egunsenti goizian
erle egazkariak
mun ta mun loretan.

SASITZA

Ainbeste sasi ta lar,
berezko arnariak,
asmau ditu leorrak;
uraren indarragaz
moskortu ete dira
sasitzako arrak!

Sasitza loiak zear
sugeak ba-doazi
irrintz gaiztoetan;
izadiko kokoak
orri azpian negar
estura miñetan.

Eriotz ta bizia
burrukan jarri dira
indarkeri agaz;
txikiaren larria...! !
gaiztoa otseintzen
zaiñen odolagaz.

SASI

Leize zulotik datoz
edurrak agurtzera
lendabizikoak;
Aitorren ume danak
bizi oiñian dagoz
euskalerrikoak.

Sasi garbitzailleak...
zer zeunken eskuetan
makilla besterik...?
zuen buru ta itza,
gaur, amestu nai neukez
pozez alkaturik.

Euzkotar langilleak,
zuek sortu zenduen
baratzan lorea;
euzko emakumeak,
zuen bidez eldu zan
Aitorren semea.

KIMUAK LORETAN...?

Arantza eta satsa
zitun bere soiñeko
sorterrian lurrak;
landu eta menperatu:
ots egin eban goitik
Aitorren abotsak.

Egurrez eta makillaz
jo zitun len urratsak
euzkotar semeak;
arrika il zituen
sasiaren puntetan
txorien umeak.

Suge-zarra oinpean
sasirik sasi iges
irrintz bizietan;
noz agertuko ete
lu barria zugatzez
kimuak loretan?

EDURTZA

Edurrezko arlosa
dirudi izadiak
zabaltasunian;
an, urriñean datza
euzko mendi zorrotza
bakarrik ortzian.

Edurtze puntan dago
Aitorren baseliza
izadira adi;
lurra, ixilik, dago
Aitorren eskarira
otzez dardarati.

Leizetan arbasoak
edurtzetatik iges
su epel ondoan;
arrigarrizko izkuntz
jakituriz betia
ebillen gogoan.

SASI MAMUZ

Urdin utsa noiz-beinka,
sarri odei dardaraz
ekusen lezea;
biziaren garratza
zer zan, ando, ekien:
arantz emoil lea.

Sasi mamuz beterik
lur oro izadian
eta tresnarik ez;
zegaz urratu lurra'..
arantzaz zaurituta
atzak zoritxarrez.

Sasiekin burruka
izkuntza sortu eben
arrimenezkoa;
gizon aren mingaiñak
izarrak zirudien:
arrigarrizkoa.

MENPETUZ

Euskaldunen buruak,
sortzez, ba-eben zerbait
dizdiragarria;
erri baten sortzea
euren ardurea zan...
itz miresgarria.

Sasi baltzak eupaka...
iñor ba-da munduan
euren aiñakorik;
gizonak ezin itzi
bakean sasiari
erantzun bagerik.

Aizkora ta atxur,
arriz, sortu zituen
arantzen etsaiak;
gizonaren almena
arrian agertu zan
menpetuz lardiak.

TONTOR

Edur ostean lurmen
agertu zan mendian
ota-baso l u rrez;
beti, miña erion
arantza zorrotzari
odol ezbearrez.

Gizona geiago da
adimen argiagaz
lur guztía baiño;
aizkora ta atxurraz,
lengo lur zapalduak
eldu nausiraiño.

Euskaldun Aberria,
lugiñak sortuagaz,
gora gora, dator;
sasiak berantz doaz,
euskal mintza edertzen
tontor gainik tontor.

ARANTZAZ

Geldi geldika doaz
atxurra ta aizkora
agi ñak agertzen;
lengo otatz ta (artzak
atxurren koxkorrekoz
ba-doaz bildurtzen.

Zazpi probintzi ontan
atxur ta aizkolari
doaz lur menpetzen;
odolez euzkotarrak,
leizetako semeak
euskeraz mintzatzen.

Atxurrak egingo dau
gizonaren esana,
sasi errukarri;
len, zuk gaillendu zendun
lur danaren bizia
arantzaz mingarri.

LANDU

"Landu egizu lurra,"
esana eiten dabiltz
aizkora ta-atxurra;
alkarren laguntzaille,
beti dira aiskide
etsaiaren aurka.

Alkar-izketa izan da
nundik nora lan egin
izadi arloan;
aizkora zugadira
ta atxurra solora
artu zan gogoan.

Euzkotarren besoak
egiz bizkortu ziran
atxur ta aizkoraz;
zugatzak bizigarri,
ta sasiak lubarri
eginik euskeraz.

AU RRERAPI DEA

Asaben izerdia
bitxi biurtzen doa
mendi egalean;
otamendiko lorak
sagar lore izanen
zelai orlegian.

Lengo piztien orde
lorerik lore dabiltz
erle langilleak;
lengo arantza sasiak
ezti biurtu dira
frutu emoi I leak.

Aurrerapide ontan
itz eta poz barriak
dagoz aldapetan;
aberastuten doa
itza eta joskera
euzko jendeetan.

ARANTZ ORDE

Arri atxurrez doaz
sasiak menperatuz
lurra itsuratzen;
piztiak ba-doazi
zelai barrietatik
iges urrindutzen

Lengo arantza orde
arto eta gariak
etozan ugari;
urrezko eguzkia
maite garretan egon
soloan dardari.

Euzko arbaso arek
gero eta pozago
bizian aurrera;
lengo sasi lupetzak
itz barri egin ziran
ale gozo bera.

LUBARRI

Lubarri sail barriak
aldapa ta (auetan
izarrak iduri;
basamortu illuna
itzala galtzen doa
giza bildurgarri.

Soloak ta baratzak
erne min, pipittetan
negu baltz ostean;
udabarrian lorez
arnariak opatuz
usaiñen artean.

Zenbat itz eder doaz
lur landuagaz sortzen
izkuntz baratzean;
Aitor begira dago
euzko Aberriari
aitzaren gaiñean.

LANTZEN

Landu ta ugaritu
zan Jaunaren esana
lurraren sorreran;
euskaldunei esana:
landu lur ta izkuntza
bizitz gora-beran.

Euzkoak landu eben
Pirinai menditatik
kantauri itxasora
izerdiz ta odolez
zeuena da lur onen
luze-zabalera.

Millak urteetan dabil
Aitorren enda zarra
euzko lurra lantzen;
atxurrez ta izkuntzaz
edertu dozu lur au
eskubidez zaintzen.

BEREZIA

Arbaso aintzagarri...
zer zeunken buruan
ta zer biotzean...?
eguzkia al zeunken
gizonak argituten
egun bakoitzean...?

Nungo sor-miñen aduz
mintza al izan zenduen
izkuntz berezia;
aritzak ete ziran
arkaitzen indar zuriz
zuen goi argia...?

Mendi eta zelaiak
soin orlegiz jantzita
al ziran gidari...?
erreka ta ibaiak
murmura goxoetan
al ziran kantari...?

ZELAN...?

Izkuntz ain jakintsua,
lurra arritu dozu
zure argiagaz;
zelan sortu eitekean
ainbeste edertasun
basoko itzagaz...?

Aitzagaz bat ein ziñan,
itza eta arria
miñez gizaturik;
mendi eta arruek
eder ziren zuretzat
orlegiz jantzirik.

Euskaldun ariztiak
lerdena erioen
enbor sendoetan;
zuretzat itza ziran,
euzko mintzaira gailen,
orri orleietan.

OIAN ORLEGIRA

Euzko gizon burua,
itz gordaillua zara
iturri sorkeran;
landazuri orretan
eguzkia ebillen
urre-printz artean.

Zerua oztin bat zan
itzaren oatzea
bake zurietan;
euskeran, an, ebillen
izarrekin izketan
euzkoen miñetan.

Ederra batu zendun
izadi jakintsuan
euskaldun mintzaira;
Aitor zeunkan begira
urrezko mendi goitik
oian orlegira.

IZKETAN

Itxas urdin zabala,
zure gain eguzkia
printzaz dizdizetan;
ederra eskein zeuntsen
gure arbaso zarrei
argitasunetan.

Itxas muga bagea,
izketan ebilkion
euzko buruari;
itz urdin ta alaiak
goxo, etorkiozan
euzko semeari.

Arraiñak nai ba-zitun,
opaka egon ura
urdin eta zuri;
basarteko gizona
mendi ta itxasoaz
izketan urduri.

LIRINTASUNA

Mendiak itz egin dau
barrua ustu arte,
dana esan nairik;
mendi liraintasuna
itzjariotan dago
maiteki urturik.

Arriak bilin-bolo
arkaitzetatik datoz
euskaldun mintzairan;
aizeak aska ditu
burrunbada otsean
lurragaz burrukan.

Oro da itzal, eder,
izadiko soiñuak
leizaren aurrean;
ortik artu dau itzak
argia ta indarra
euskaldun barnean.

EUREN DIÑAKOA

Maite eben burdiña,
ixil ixilik, egon
lurrean gordeta;
danak euzko semeak
basoen babesean
itzak alkartuta.

Burdiña izango zan
ixil ta sendoa
euzkoak lakoa;
leize ta mendietan
sortu eben izkuntza
euren erakoa.

Eziikorra dirudi,
lurrak dirauan arte
ez il euskerea;
zure-edertasuna da
lur onen ziñaldari
izkuntz leiñargia.

UARKA

Aseran sasia zan
gaua baiño baltzago
alderdi danetik;
suge toki ederra
piztiak orroaka
mortu zulotatik.

Otso, azeri, artzak,
bakoitza berenean
zulo bazterretan;
ixil ta zur begira
arrapakiñaren zain
uarka ertzetan.

Inguru gogor artan
danak parte izan eben
euskera sorreran;
izkuntz edertasuna
sasi eta argitik
errira eldu zan.

GAILENAK

Basoidiak murrus
ta zaldiak irrintzi
basoko giroa;
euzko gizona dabil
aberekin izketan;
mendiko soiñua.

Geldi geldika doaz
piztiak otzanduz
euskeraz ulertzen;
euskaldunen erria
eratu bear eben
zelaiak sortutzen.

Izkuntzalari gailenak
berezko argibidez
mortuan ebiltzen;
gaurko izartegia
enparantz urdiñean
itz barriak sortzen.

ARKAITZETI K

Izkuntzalarietan
mendi gallur bat dakust
argitsu ta garden;
jakituria egon
Maxaren magaletan
itza erakusten.

Edesti aurrekoak
gain ori maite eben
zeru leio antzera;
egunez eguzkia
gabaz izar argiak
itzen dizdizera.

Ederra bera zara
izadiaren eraz
orkatil gaiñean;
edonora begira
izugarria ziñen
izkuntza sortzean.

ERAGILLE

Maxatik aurrez aurre
itxasora begira
Ereiñusarre gaiña;
Santimamiñe itza
an, sortu zan euskeraz
erritar mamiña.

Ereiñusarretarrak
ta Maxako jentillak
Euzkadiren jaube;
enda berezgarria,
euzkotar sortu eben
bion biotz arte.

Endea leiñargia,
arkaitz zuri antzeko
indarrez egiña;
euzko izadia zan
leiza aldi aretan
eragille ziña.

MAX

Maxa gaiñean dago
arbaso ezaugarri
triku-arri zarra;
gainik gain, biziagaz,
eurena zan guztia,
lan, gain ta bizkarra.

Arbaso langilleak
zerk indar egitsuen
sasiak iltzera...?
burruka zan bizia,
(ardiak menperatuz,
jaunak izatera.

Gizontasun ta lana,
zuek ziñen argia
eta erri gatzia;
ortik sortu bear zan
euzko Aberri ama
ta beren izkuntza.

MINTZATZEN

Gainik gain nabil adi
mendi gallurretara,
arbasoen kabira;
bedar zeia oinpean
goi atsegin zoria
datorkit barnera.

Berez, itz egiten dau,
mendi, aitz, zugatz, lurrak
beraren indarrez;
egunsentian goizez
argiak urratzean,
urtu bear maitez.

Maxatar arbasoak
erleak legez ziran
guriña xurgatzen;
lorerik ederrena
izkuntza sortu eben
euskeraz mintzatzen.

NUN ZEI

- 1 tik aurrera. Amaren sabelean, jaiotza, ume ezer eza.
- 6 tik aurrera. Bateoa. Maietzaren ederra... Kukua.
- 12 tik aurrera. Udabarria esnatzen.
- 16 tik aurrera. Baserriko giroa.
- 31 tik aurrera. Mutilla lo-zorroan, azten... Ingurua ikusten.
- 46 tik aurrera. Baserri bizitz gogorra.
- 50 tik aurrera. Mutil koskor aroa... ta eskola ta bei zaiña...
- 74 tik aurrera. Baserriari agur... pistola-riak...
- 78 tik aurrera. Baserri ta izadiari begira.
- 85 tik aurrera. Euzko arbasoak... (urra ta izkuntza
- 111 tik aurrera. Aitor arbasoei begira... basarteko euskaldunari.
- 129 tik aurrera. Erria sortzen doaz.
- 163 tik aurrera. Aberri izpiak agertzen doaz.
- 181 tik aurrera. Jainkoa Euskalerrira adi.
- 200 tik aurrera. Abade aurkako etsaigoa.
- 205 tik aurrera. Euzko sena.

kNTZEAN

214 tik aurrera. Gazteizko jaupaltegi ta ingurua.

219 tik aurrera. Euskal izaera zindoa. Abade aurkako salakuntza.

228 tik aurrera. Guda bidea...? ... Ta Euskalerria.

240 tik aurrera. Guda aurea.

1 52 tik aurrera. Lana aldeztuten euskaldun abadeak.

257 tik aurrera. Agirre langille buru...

273 tik aurrera. Euzko Aldunak Lege Biltzarrean ta Euskalerria bere oiñean.

284 tik aurrera. Guda gertaera, guda ots.

293 tik aurrera. Euskaldunak zentzundun.

297 tik aurrera. Euzko seme ta abadeenganako gorrotoa.

315 tik aurrera. Ariztimuño.

319 tik aurrera. Aonaindia'tar Alberto.

336 tik aurrera. Arizmendiarrjeta.

355 tik aurrera. Gernika... Lauaxeta.

ARANTZ

Euzkotar arbasoak,
biziak eraginda,
mendian dabilta;
leizeak bizi-leku,
neguko gau otzetan
ume negar otsa.

Arantz arte aretan
izadi ta gizona
lagun biur dira;
gizona izadiaz
biak izketan dabiltz
euren naietara.

Sasiak beren ederra,
maitasunez, dario
udabarri loran;
lorearen ezta
itz garden biurtzen da
izkuntza sorreran.

ATXERRE

Amaika milla erle
ba-dabiltz arkaitzetan
ta arriak parre;
eguzkiak goizean
zabaldu dauz egoak
ta pozez atxerre.

Goizerik len orduan
alkar-izketan dabiltz
aitza ta gizona;
arkaitzak gizonari:
ni naz zure etxeko
bizitz osasuna.

Gizonak arkaitzari:
nik artuko zaitut gaur,
neure lur gaiñean;
biok egingo dogu
alkartasun egia
baratz magalean.

OSTETIK DATOR

Oi udabarri goizez
lurraren zoramena
irripar eztitan;
maitasun samurrenak
agertzen azi dira
lore zurietan.

Mendi ostetik dator
argiaren indarra
lurra eztitzera;
izadia zain dago
bizia emon nairik
giza biotzera.

Eztizko itza dabil
zugatzetik zelaira
aiskide otsean;
bizitza sortze-garra
berez dario lurrari
izkuntz ederrean.

GOZARTUZ

Sasi aldi aretan...
nor zan izkuntzalari
deika daukat itza;
baso ixiltasunak
beren itzaltasunez
agertzen izkuntza.

Gizona ardurati,
izadira begira
irudiak batuz;
alkar-izketan dabiltz
izadiaren ederra
euskeraz gozartuz.

izkuntzalari bikaiñak,
lurra ta gau urdiña
izarretan dizdiz;
gizonaren buruak
ederrak jaso ditu
irudimen argiz.

ERRI

Euzkotar arbasoak
izerdiz landu eben
sasizko basoa;
izanik izarrera
urtu zituen buru
biotz ta besoa.

Erri jaubetasuna,
ondo, ordaindu eben
lan ta kultur-gintzaz;
euskaldunen legeak,
zuzen, argiak ziran
eskubide itzaz.

Euzkadi berea da,
ez iñoren menpeko...
edesti aurretik;
leize aldi aretan
lurra landu ostean
erri jaun egiñik.

SUSTRAITIK ARIA

Matsetik matsaren ur,
sagarretik sagarra
arnari atea;
goroztitik gorozti,
aritzetik aritza
indarrez betea.

Bakoitzak emoten dau
sustrai barruan daukan
adore bizia;
burdiñak eta arriak
euren sendotasuna,
euzko irudia.

Lurra ta euskalduna,
egiz, bat egin ziran
Aitorren mendian;
endazko Aberria
batera sortu eben
izkuntz ederrian.

SOIL SOIL

Lurra soil soil zanean,
izartegi bitartean
enda agertu zan;
mendi arte gogorra
beraren diñakoa
aukeratu eban.

Arkaitz eta mendiak
alkar adí izketan
anaitasunera;
Aita bat euken danak
izar goitik Jainkoa
Egille berbera.

Mendietan ebillen
abesti gozoetan
Aitor euskalduna;
seme-alabei adi,
enda on bat sorturik
itzez zentzunduna.

BERA

Mendietatik bera
ur gardena etorren
bolada zurian;
mendirik ez egoan
abere ta ur barik
euzko izadian.

Arkaitz, ur eta lurra
biziaren oiñarri...
euzkoei laguntzen;
atxur eta aizkoraz
gaitz adarrak moztuaz
arnariak sortzen.

Zugadi ta arridi
etxearen eusgarri
egur eta arriz;
gizonen lagunak
arri olezko ethez
itza sor-eraziz.

BATEAN

Aitorren jentaldeak,
arriak legez, gogor,
tinka zitun oiñak;
ez zan ederragorik...
mendiak zirudien
beretzat egiñak.

Aizea ta urdiña,
danak ziran etxeko
batasun egille;
arriak ta soloak
anai biurtu ziran
alkarren maitale.

Antziñako legean
izadi ta gizadi
ebiltzan batian;
Pirinaitik asi-ta
euzkoen itxasora
alkartasunian.

BAT ETA BERA

Millak urteetan zear
mendi ta izengurak
ziran babesgarri;
nasterik ez egoan
andre ta gizon oro
laguntzen alkarri.

Bakoitzak eukan itza,
goizetik ta gabera
eguzki argia;
gabaz izarrak dizdiz,
atsedenezko lotan
euskaldun jentia.

Ez egon beste iñor
lur onen esparruan
euzkotarrak baiño;
ez zan beste izkuntzarik...
bat ta bera ederra
euskoen maiteiño.

ALKARTASUN

Alkartasun bidean
ezkontzak, gozo, ziran
maitasun agiri;
menperatu egizu
Euskalerriko lurra
semeen bizigarri.

Giroa sortzen doa
lege zarraren eran
larradi mendian;
danak, batera, doazi
gizatasun zentzunez
buru biotzian.

Ezbardintasun itzak
arbasoen baratzen
ez dauka lorarik;
Aitorren euzko senak
mendi eta gizadi
daukaz alkaturik.

ANTZI NA

Antzinatean ziñan
zar, sendo eta zindo
basarte bakarra;
basoaren irudiz
zuregandu zenduan
giza zentzuduna.

Arriak ta ibaiak
garbitu ta sendotu
eutzuezan erraiak;
arri-ikatz dirudizu
mundu zear zabalduz
egizko bidiak.

Bekaitztia ez ziñan,
zure lurragaz, pozik,
jokatu zenduan;
egia zan gidari
lurreko arduretan
biotz ta buruan.

ITUNA

Izadi ta gizadi
arri aundi bi legez
ziran sort-oiñarri;
laguntegi bakarra
azur eta izerdiz
gizon arrigarri.

Zentzuna eban, berez,
izar baten antzera
bizitza gidari;
arri atxurrez lurra,
ta aizkoraz otea
makurtuz oiñari.

Gizonak eta lurrak
itun bat egin eben
egi irudia;
guk landuko zaitugu
ta zu izango zara
Euzko Aberria.

MUGAK

Mundu zabalean dager
gizadi berezia
beren gorputzkeraz;
nork emon ete dausto
berezko izakera
azurren itxuraz...!!

Arkaitzak zuri antzo
zuzentasuna dauka
biotzean gartsu;
egiazko agintzak
edurrezko iduri
biotzez maitetsu.

Aberria ba-doa
gero ta argiago
beren sena artzen;
euzko jakituria
eta lurraren mugak,
egiz, dizdiratzen.

POZTU

Mendi gallura garrez,
ibaia egon urez,
txoriak kantari;
lurraren gar onetan
bizi guztia egon
ederrez dardari.

Arbasoen kantuak
gallurrik gallurrera
egazka doazi;
Aberri deadarra
mugarik muga doa
biotzen nagusi.

Zelaiak orlegitsu
ta baratzak loratzen
asi dauz argiak;
Abarriaren itzak
poztu dauz mendi, zelai,
itxas ta erriak.

EUSKALDUN EGIA

Arrigarria zara
euskaldun enda zarra
kabi kutunean;
zure biotzak ez dau
ondamuzko obenik
iñoren kaltean.

Nork ezi ete zaitu
mendi gallurrak ala
euskaldun egiak...?
leizetik urten dozu
aleak sor-eraziz;
janari eztiak.

Guztia da zeurea
atxurrez jorratua,
aizkoraz ausia;
lurra menpera dozu
beren barrenean sortuz
euskaldun egia.

OTSEIN LARI

Baso zorientzuan,
alan bear etsia,
gizon euskalduna;
lurrak emoten dautson
zorion egarria
dau askatasuna.

Kateirik ez dau iñun,
mugarik muga doa
euskaldun itzetan;
guztiak erritarrak,
lur beraren maitale
mendi barrietan.

Basoetan piztiak
itzaren esanera
biurtzen doazi;
zaldi eta akerrak
irrintzi eta pozez
giza otseinlari.

URREZ...?

Euzko enda zindoa,
zure sorrera **billa**
dabíltzaz gizonak;
zure nortasun itza,
urrin, gordeta dauka
aldien jakintzak.

Zer daukazu zuregan...?
Zerk egin zaitu gizon
era ortakoa...?
Izardi argitsua,
gabean urdin ortza
zure antzekoa.

Legez argitu zendun
munduaren bazterra
jakituri itzez;
lur onek ete eukan
zuzentasun izpia
eguzkizko urrez...?

ZAR... SEN DO...

Iñork ez ekiala
lur ontaz jabe ziñan...
enda berezia;
zure eskubide zan
lur au atxurrez landuz
bizi izatia.

Sasiak ogi biur
ta latsiñak lubarri...
a bai zan erria;
Aitorrek esan eban:
munduko endartean
bakarra neria.

Zar, sendo ta zindua...
egia dau izarra
buru biotzetan;
endari sartu dautso
burdiñazko giarra
gizontasunetan.

GAUZ

01 Euskalerra maite,
min daukat biotzean...
zure barne miña;
zerk egin zaitu bakan
enda danen artean
ain izar duiña...?

Argitan argi zara,
izarretan nagusi
ortzi urdiñean;
mendi aritzak legez
zure semeak lerdan
eukoen lurrean.

Arantzak eztituaz
baratzean larrosak...
gauz ameslaria;
euskaldunen Euzkadi
egi izar dirudi,
munduko argia.

GEROZ

Euzkadi zendun izen
jende leiñargiaren
lur sorterrria;
leizetik iez ein da
arizti biur zendun
mendi irudia.

Lauak, solo ta baratz
agertu ziran geroz
izerdiz onduta;
arbasoen kantuak
euzko lur dana dauka
goiz ernerazita.

Lur au bedeinkatu dau
enda on baten itzak,
beti, arrigarri;
ziñez, zure indarra,
odolez daroazu,
giza miresgarri.

EN DAMA

Ama nor dan esatea
ez da errez mingaiñez,
izar danen guena da
dizdiz, argi zerutarrez.

Ortziko izar danetan
argi dizdilariena,
izar edertasunetan
urre bitxiz joriena.

Biotza dau urrezkoa
eguzkiaren antzera,
adimena argizkoa
edur zurien gisara.

Ama da errai zabala,
biziaren iturria,
ondo bako itxasoa,
maitzun danen egia.

ENDA ARTEAN

Ez dira itz utsak,
euskal mendietako
gizonen urratsak;
gizon ta andra tegi
berezi ager zitun
euskaldun baratzak.

Biotzak darabiltzaz
gizon aginpideak
ta odol gorria;
itzez zara berezi
arkaitzen irudiko
bizitz iturria.

Zelan irazan ziñan
ain garbi eta argi
lurraren aurrean...!
izartarra dirudi
zure argitasunak
giz-enda artean.

ONDO ERATURIK

Elurtegi aldia,
zer adu euki zendun
euzko lur mendietan...?
zer izatezko eder
emon zeuntsen euzkoei
aldatz malkarretan...?

Zuk banatu zenduzan
munduko endartean
euzkoen semeak
enda berezia da,
odolez autatua,
berebizi koak.

Lurrak ez dau bardiñik
odol mota artean
bere erakorik;
gorria ta garbia
ezaugarri bakanez
ondo eraturik.

ODOL

Euzko odol tankera
larros gorri antzera
bitxien bitxi da;
gizon zain gorrietan
iturria dirudi
itzak eraginda.

Odoletik al dator
zure zindotasuna
euzkotar semea...?
zetzuna ezaugarri
zuga, beti, agintzen,
lege ardurea.

Odolak berezi dauz
lurra eta gizona
enda zar batean;
Euzkadin tinkatu zan
erri ain berezia
giza batzerrean.

LUR ZUZENDARIA

Enderria sortu zan
beren lege sor-miñez
euzkoz osoturik;
zer dozu euzko enda
gizontasun argiaz
ezaugarriturik...?

Lurrez bat bakar zara
millak urteen aldian
mugaz esituta;
izkuntzaz zeu zeurea,
odolez bat bakarra,
enda bat eginda.

Lurrak, itzak, odolak
Euzkadi maite eban,
Euzko Aberria;
zeu ziñan legelari
izarra baizen argi,
lur zuzendaria.

Biziaren zoriak,
indarrez, aginduta,
lanean ebiltzan;
arrizko atxurrekin
ausi zituen larrak
nekezko izertzan.

Aldien aldietan
arrizko zirudizun,
jente lagilleak;
lurra menpera ebin
sasiak zelaituz
euzkoen indarrak.

Gogoa ta odola
oro opaldu eutsen
amaren lurrari;
lur eskubide dana
amak emon eutsoen
seme-alaberi.

BAZTERRAK ARGITZEN

Euzko abenda zarrak
ekiñean lortu dau
bere nortasuna;
bakarrik jardunagaz
landu zitun mendiak
ta troka barrena.

Odol, buru, biotzez
izarrak irudien
edertasunean;
berezko legea zan
anaitasun giroa
bizitz zuzenean.

Berez, erri agintea
asmau eben eurentzat
danetan ederren;
mundu zear joan zan
lege jatorren bidez
bazterrak argitzen.

Millak urteetan zear
lurra lantzen dabiltz
sendi baten antzo;
lurraren jabe dira
zeru bake irudian
gizon ta andrazko.

Zentzunaren ederra
emon eutsen mendiak
gabez izarretan;
egunez eguzkiak
argitzen zitun lurrak
euzko zelaietan.

Arbaso euzkotarrak,
lurra arritu ein zan
zuen zentzunagaz;
lagun danen batzarra
euzko erri egin zan
Euzkadi sortuaz.

EUSKALDUNAK

Euzkadin bizi ziran
euren nortasunean
Aitorren semeak;
egiz, bake gizonak
sasi larrak jorratzen...
lanaren umeak.

Ez egoan etsairik
zuek, soillik, zengozen
euzkoen lurrean;
antziñako legea
zenduen zuzendari
anaien bakean.

Maite zenduen lurra
izerdiz eresia
altxor aundiena;
euzkotar jaio ziñen
izkuntza bardin gabez
ama - semiena.

LEIALTASU NA

Amairu udabarri
ots-baten joan ziran
mutil koskorretan;
Jainkoa, ixil, dabil
muti l leri begira
euzko bazterretan.

Nik ez dakit zergaitik
Jaungoikoa egon zan
lur ontara adi;
maitasun, errukia,
zer izan eutson Jaunak
euzko gizonari...

Baratza eder bat al zan
euskaldunen erria
larrosaz jantzirik...?
Giza leialtasuna
al euken gurasoak
Jainkozaleturik?

EGIA

Aterik ate dabil
Euskalerra guztian
artzai gaien billa;
lurra onduta dago
nora nai jarraitzeko
gerturik mutilla.

Euskaldun lur maltea,
zer zeunkan biotzean
urrez estalduta...?
Zer egon baserrian...
sinismen irudiz
barruan gordeta...?

Zerua eta lurra
alkartuta egozen
euzko mendietan;
Aita morroien billa
egia zabaltzeko
euzko gizonetan.

LAN DUTA

Euskaldun lurraldeak
egi maite - miñetan
landuta egozan;
euzkotarren gogoa
zuzentasun egarriz,
ondo, loratu zan.

Egi eta otoiak
landuta euken lurra
euzkoen baratzan;
amaren bularretik
fedea artu eben
ugatz xurgakeran.

Baratza zirudian.
Zerutar ortulaua,
atsegiñez, dabil;
nai aiña lora eder
udabarrian bipil
neska eta mutil.

AGUR

Agur aita ta ama,
agur nire kaiola,
sortu ninduen; agur
anai arreba,
odolezko anaiak...!
itz aundiena.

Goizian goiztar **dabiltz**
otoiaz janaritzen
arima barrena.
Poza ta atsedena
sentitzen dauz biotzak,
beren salbamena.

Zerutar **izar** antzo
dabilkioz **aidean**
irudi barriak;
Jainkoa dabilkie
argitasun izletan
zabaltzen bidiak.

EGIN

Otoi, ikaste, jolas,
muti l len bizitzako
iru zutoin dira;
argia da gidari...
jolasa sendolari...
otoien girora.

Argiz argitzen doaz
mutil autatu arek
anaitasunean;
Jainkoaren laguntzaz
indartuten doazi
giza bearrean.

Eginbear bat dauka,
izar antzo argitu
gizonen ortzian;
biotza zentzarazi
urrezko egiteak
sortzeko bizian.

NUNDIK

Soloa landutea
trumoi ots artean
giza burruka da;
beti, neketan dabil
lur langille gaisoa
goseak minduta'

Mendi barruko miak
ogiz beterik dagoz
illunpe orretan;.
noztik biurtu zara
gizonen etsai ilkor
lurren ikaretan...?

Lantegi sakon bat da...
danetan gogorrena...
biotz ezitzea;
gizona bildurrez da
nundik asi leiteken
lan ain berezia.

BURRUKA

Agur baserriari...
Ametsik aundiena
daroa barnean;
zeru goitik lurrera
eldu zan albistea
Jainkozko itzean.

Juangoiko billa doa,
egizko jakituriz
argitzen burua;
Jainkoaren irudi
izango da lurrean
izar biurtua.

Burrukarik latzenak
leoien goitikoak
jasan beariko dauz;
burnizko esikuntzak
joko dautsoz atea
ziltzaldiak austuz.

1N DARTZEN

Bizikera barria,
lengo legenarra
asi da burruka;
sola neugan dago
estu dabil gogoa
sasiaren aurka.

Mutil indar txikiak
ez dabiltzaz bakarrik
ausi bearrean;
aizeak eroan lei
indarge dagon garra
biotz barrenean.

soloaren jaubea
atxuriariaz dabil
mokillak apurtzen;
gaztetxo da oraindik,
adimen ta adorez
jabilko indartzen.

AURRERA EGINIK

Nire etxeko mendi,
ez ziñan ain gogorra
nire atxur aurka;
al norbere soloa...
atxurrez mindu eiten
da giza gaisoa.

Gogoz, ezpaitan, dabil,
gorputza, beti, nagi
alperkerietan;
gogoia gorantz adi
askatasuna nairik
burrukaldietan.

Bizia burruka da,
ondo, daki gogoak
goi argiz bizturik;
leoi baten gisara
orroaz orbiztuta
aurrera eginik.

EUZKO BARATZEAN

Mutilla azten doa
buruz eta biotzez
eziera bidez;
udabarriko landan
morgiltzen diran legez
lorak eder-miñez.

Sasoirik ederrena
Jainkoari damotso
maitasun garretan;
pozezko gaztaroa
gero uda gori an
ale samurretan.

Gogoa eltzen doa
giza leiak urretzen
nortasun garbian;
ludira ade dago
argia zabaltzeko
euzko baratzean.

BARNERA

Euskalerriko apaiz
euzko lore artean
nai Zeuke ibili;
Aitorren semetzaren
kristau eskubideak
landuz erabili.

Fede eskubidea,
lurren jabetasuna,
sortzez, dauz bereak;
itzez eta odolez
zainduko dauz apaizak
kristauen legeak.

Iñoiz ez da zillegi
notiña zapaltzea
norbere naitara;
erri onen odola
beti, deika egonen
etsaien barnera.

ZABALTZEN

Burua nekatzen dau,
sarri, mutil gazteak
zuzentza bidean;
argiz edertzen doa
goizeko izar antzo
giz jokamenean.

Biotz aldakestuak
iñausi oi daroaz
aizkora zorrotzaz;
geroz kirru barriak
zindoak izateko
itzaren egiaz.

Arbola iñausia,
beti, eder zelaian
ale itxaropen;
iñausi dan biotzak
lorea ta arnari
eskarrez zabaltzen.

MAITASUNEZ

Otoi bidetan dabiltz
ainbeste mutil gazte...
itz arrigarria;
zerutar ikasiaz
argituten doazi
gaztedi barria;

Euskalerrarentzat
lana otoi, izerdi
biotz barrenetik;
ametsa, maitasuna,
dana opaltzen eben
olioz bustirik.

Euskal jaupaltegiak
ariztegi dirudi
landara ederrez;
kristau osasuna da
beren ezaugarria
Jainko maitasunez.

DEI

Euzko jaupaltegia
Jainkozko irudia
zara zu lurrean;
guztiak gorantz adi
izarrak lez urretan
zeru usaiñean.

Erria, pozik, egon
Jaungoikoaren itza
asmaurik ortzian;
mendietara deika
lora barrien billa
udagoienez.

Otoia ta laguntza
alkartuta doazi
zeru ta lurretan;
semeak aitari dei
lurrak izarrari lez
argitasunetan.

OTSEI NTZAN

Mutillak azten doaz.
Jakituriz argitzen,
biotzez sendotzen;
aurraldean dakuse
Jainkoaren **arloan**
garitza urretzen.

Gazte gurari oro,
fede aldezkaria,
bizi bizi egon;
arkaitzak legez argi,
aritz antzera zindo
sinismena jagon.

Euskaldun apaiz gaia
deiari erantzunez,
zindoro ebillen;
ez eukan salkeririk,
maite eban erria
biotzez otseintzen.

EUZKO BARATZA

Euzko jaupaltegia,
asmo, bikaiñenetan,
arduraz, ebillan;
erriari on egin
egiaren indarrez
euskaldun baratzan.

Oroz goitik gauza bat
zan bere **guraria**;
gizona askatu;
"Lotuak askatzera
bialdu nau Aitak"
Jesusek dirausku;

Lotuak nortzuk dira...?
Guzurrez zapalduak
era askotara;
orrek dira aske-gai;
apaizaren egia
katei auste da.

ARGIA

Jesusen errukia
beartsuen alde zan
goseak mindurik;
euskaldun apaiz-gaia
zuzengabekeriak
eukan samindurik.

Jesus, arrenka, deika...
aurrera, mutil, gazte...
zuzentasun bidez;
etsaia, beti, dabil
guzurrezko loturaz
atsipetu naiez.

Neu naz egi-bidea
eta zuen bizia
goi argiz jantzia;
Euskaldun apaiz gaiak
zuzendari bat euken...
Kristoren argia.

ZUEN ALBISTEA

Egiazko mastia
zirudin gaztediak
lanerako gertu;
otoia zan atxurra
egia zam mezua
ta argiaz argitu.

Etsaiak ebiltzezan
santutasun indarra
zuri ostu nairik;
baiña etxea eder
mutillak ederrago
graziz igurtzirik.

Jainkozko etxe zan
euzko jaupaltegia
munduko lorea;
ekin eta zabaldu
Jainkoaren laguntzaz
zeru albistea.

GURARI

Bakean bizi ziran
muti l l i k oberenak
Gazteizko zelaian;
otoi eta ikasi
gizontasuna artuz
apaizgo bidian.

Mutil aren arreta,
egun senti arotan,
Euskalerrria zan;
Jaungoikozko egia
erriari ezarri
salbamen argitan.

Kurutza zan gidari
ta Kristoren odola
aldaran edari;
Kristogaz gorputz bat ein
Euskalerrri osoan
zan aren gurari.

TXERREN

Txerren atzerritarra
aspalditik ebillan
malmuzkerietan;
ardirik oberenak
iñoiz, ezin ikusi
euskal zelaietan.

Ondamu gaitz okerra
urri nd i k etorri zan
nauskeri gosetan;
zidar eta burdiña
beretzat nai zitun
ezpat indarretan.

Ortarako iraindu
ta izen ona bestu
zan bere egiña;
auzo basotik dator
ardi lana eruten
azeri zorgiña.

O1!

Oi Euskalerrri maite...!
Zuri begira nengon
ederraren antziz;
berezko legea zan
zugañ gizontasuna
egiaren bitxiz.

Zugandík sortu ziran
ainbeste seme barri
Jainkoaren otsein;
orokorrak bait ziran
zure seme - alabak
munduaren duin.

Euskaldunen gogoa
Aberritik mundura
on egiten doa;
zure zabaltasuna
zeurea, bakarrik, da,
Aberri maitea.

LOREA

Euzko baratz orleian
milla mueta lore
erluzetan dagoz;
ederrena zein ete dan...
eguzkia begira
dizdiz pozkarioz.

Batzuk zidarrezkoak
aize pinpi ri ñetan
egoak zabaltzen;
asko dira urrezko
su gorrizko iduri
odolez gorritzen.

Bat dago oroz goitik
euzko biotz barruan
ixilpe gozoan;
euzkoen izatea
bakezko jantzi zuriz
giza esparruan.

ERRIKO EUSGARRI

Zenbat guzurrezko itz
jausi da zure aurka
ene lur maitea...!
egiaren etsaiak
ezin ixildu eben
miñaren laidoa...

Erriari zor jakon
maitasun garbiena
gaiztakeria zan;
erri au zapaltzeko
euken amorru zarra...
santutasuna zan;

Ene erri maitea:
zurre aldi artako
semea nozu ni;
egi ta sinesmena
ziran zure ardatzak
erriko eusgarri;

ETSAI ZORAKERI

Nor ete ebillan lantzen
baratz zoragarria
orren jakituriaz...?
apaizgo soilla eukan
erraietan sortua
fedez ta argiaz.

Erri ta abadetza
bat eginik egozen
Jainkozko bizian;
arrigarria ziñan
euzko erri ederra
lurraren aurrian.

Etsaien gorrotoak
ezin eban ikusi
baratz eder ori;
bestu egin bear zan
apaizgoa zapalduz...
etsai zorakeri.

BARDIN BAKO

Erriak aditzeko,
izkuntza sortu eben:
berezko legea;
adimenduna da
jakiturizko itzez
alkar ulertzea.

Benetan giz argiak:
ainbeste jakituri
ebenak itzean;
itz, aditz ta lagunak
izarren argizkoak
alkarren artean.

Irurak batu ziran
Aitorren basoetan
eder jariotan;
bardin bako izkuntza
eurentzat sortu eben
jakintza izletan.

OSTU EZI NA

Euskaldun zintzo danak
maite dau so rterria
ta bere bizia;
solo ta mendietan
lan bidez eroazun
izerdiz bidia.

Zure gizontasuna,
ortxe, eratu zendun
ixiltasunean;
lurrari **emon** zeuntzan
itzura berezia
lanez lubarrian.

Gizon zur egin zi ñen
lanari erantzunez
sendia sorkeran;
zeurea da euskera
iñork ostu eziña
gizarte legean.

EUSKALDUN SENDIAK

Lur onen babesean
ta gizonen gurariz
artu zendun itza;
berarizkoa baizan
jakintsu ta ederra
euzkoen biotza.

Atsegingarria zan,
baserri aintzatsuan,
bakezko bearra;
arrats-bera eztian
otoiaren indarrez
baretu zan lurra.

Aita, ama, semeak...
eleiza zirudien
euzko baserriak;
izarrak zirudien
ñirñir eskareitan
euskaldun sendiak.

EGIZ ARGITURIK

G izonarena bai da
mintzairaz jardutea:
izketa gozoa;
itzak berizten ditu
gizon ta aberea...
jakiturizkoa.

Gure arkaitz ederrak,
euskeraz, ziarduen
edur zurietan;
Aitor begira egon
mendi gallur zuriei
itz zoramenetan.

Birau zakarrik ez zan...
Euskerak ez onartzen
zatarkeri arik;
izkuntza ta gizona
alkar duintzen doaz
egiz argiturik.

POZGARRI

Euskera ta sinismen
berez, alkartu ziran
euzkoen etxean;
erriarenak ziran
edergallu bi onek
Aitorren lurrean.

Euzko apaltasuna
lurragaz txertatu zan,
landara bikaiña;
lurra eder dalarik
Jainkoa ederrago
gure poz egiña.

Euzkoak ez eben nai
lur ondasunak gaitik
Egillea itzi;
biziaren Jaubea
maitasun danen guna
zan euren pozgarri.

BIZITZAN

Alderdi danetatik
itza erion lurrak
euzkoak egiña;
arizti orlei antzo
gardena zan izkuntza:
lurraren mamiña.

Odol ta sinismenez
sortu eben bizia
bakez igurtzia;
jakiturizko itzaz
argitu eben lurra:
Aberri maitia.

Lorerik ederrenak,
bizi, agertu ziran
euskaldun baratzan;
sinismenak ondu zitun
lan ta gizontasuna
sendiko bizitzan.

IZKETA ARTEAN

Berezko lege zan lez
euskeraz mintzaten zan
Aitorren erria;
sendi onen babesak
itz jario beiñetan
eukan iturria.

Erria, garbi, egon
otso lakiotatik
baso mendietan;
atxur lan garaietan
akerrik ez ebillan
etsaikerietan.

Enda berezia zan
ezeren zor bakoa
beren izatean;
izkuntz arrigarria,
bakarra zan ludian
izketen artean.

EUSKALDUNAK

Aitor ta euskaldunak
alkarkide gozoan
landu eben lurra;
lauak eta aldatzak
oroitzen asi ziran
mendiko agurra.

lana edertzen joian,
ta arkaitzak zuritzen
eguzki izletan;
mendian agertu zan
aritz adar gaiñean
kukua kantetan.

Poza **erion** lurrak
bere antzeko itza
egiñez gizonak;
itza eta otoia
alkaturik eukazan
euskaldun semeak.

EUSKAL

Euskal erri onetan
Jainkoa urbil egon
baserri giroan;
aritz mendian legez
aize garbi, leguna,
an, gozo, egoan.

Baratza zirudian
euskaldun baserriak
lozez apaindua;
deitu eta ba-doa
argi ta maitasunez
indartzen gogua.

Jaungoikoa darabil
buru ta biotzetan
maitasunez lantzen;
egunak egunari
argi barri gozoak
apal, ugaritzen.

01 GAZTEIZ...!

Oi Gazteiz alde maite...!
Otseiñen gordeleku
jarria zara zu;
kabi eder orretan
euzko txoriak dagoz
abestu ta abestu.

Latin eta erdera
eleiza ta eskolan
aidean dabilta;
ez genduan entzuten
Aitorren izkuntzarik..'
tamalgarri latza.

Atzerrian sartuta
egoala zirudin
mutil aren batza;
atzerriko giroak
murriztu bear ete
euskaldun biotza...?

ITZ LAZTASU N EAN

Sinistu eziña da
euskaldunen zoria
edu ortan jota;
zer gaiztakeri adu
egoan gizartean
gizonak sartuta...?

Norberekeri baltza
berekerietan dabil
erdal usaiñean;
atzeritik etorri
ta ezeren lotsa ge
iltzaille antzean...!

Artu zituen lurra
ezin dabe ikusi
beren izatean;
ekin eta karrazi
ez dira ixilduko
itz laztasunean.

BERE BIZIGARRI

Euskalerra maltea,
zure eskubideak
berezkoak dira;
edozein endak daukaz
bere lur ta izkuntza
errira begira.

Gizonen goitik dago
orain millak urteak
sortu zan erria;
ori ezin leiteke
maltzurkeriaz ausi:
lapurkeria da.

Argi eta biotzak
zuzentasuna dabe
bizitza oiñarri;
lapurraren naia da
iñorenak artzea
bere bizigarri.

ODOL EGARRIAN

Indarkeria baltza
ez da gizon legea
illuna dalako;
argia zuzena da,
ez dau nai zapaltzerik
iñor menpetzeko.

Gabaz lapurrak dabiltz
ezpataz ta indarrez
iñorenak artzen;
leoiak zirudien
ardi zuri otzanei
odola xurgatzen.

Lotsabako txakurra
edo zertara gertu
bere naikerian;
gosez beterik dago
ta agiñak zorrotzago
odol egarrian.

ZIGORRIK GABERIK...?

Enda zauritu baten,
negarrez, jaio nintzan
etsaien artean;
al nire zorigaitza
ama ikuskeran
burdiñen menpean.

Sortzez arturikoa
kendu dautsue ama,
guzur ta ezpataz;
ziñez, zure lege da
bizia zainduta
zuzentasun itzaz.

Maite miñetan dagoz
ama eta semeak
oiñazez beterik;
ainbeste gaiztakeri
zergaitik da munduan
zigorrik bagerik...?

ZAPALDUZ LEGETAN...

Zuzen zalea zara
Euskalerra maitea
zeure barrutian;
iñonik ez dozu nai,
ez zara gosetia
zeure onginaian.

Ene Aberri maite...!
Munduan zara aundi
on zaletasunez;
zure legeak dira
lurrean goragarri
itz zuzentasunez.

Gaiztakeria, nun da
inpernutar indarra
guzurrez itzetan...?
dana on egitea
darabille miñean
zapalduz legetan.

GOSETIAK

Erria zapalduta
amak ezin ikusi
seme bizitzea;
endaren ondamena,
nastu dabe erria
ekaitzez betea.

Zoritxarra jausi da
gaiztakeriz loituta
euzkoen etxera;
egiaren semeak
kateiz lotu ditue
euren naietara.

Eskubideak kendu,
bizia ilduratu
nai eban etsaiak;
emengo janariaz
bere gosea kendu...
gizon gosetiak.

AREN AIÑENAK

Erria zapalduta
alderdi danetatik
zigorrez josirik;
ez eutsoen itzi gura
erri arnasa artzen
il duraz beterik.

Aalak egin zituen
amorruzko gorrotoz
erria deusezten;
euzko endaren sena
ezin eben ikusi,
basoan loratzen.

Min egitzen odolak,
min euskaldun izkuntzak,
min euzkotar senak;
euzko duintasunak
tripak erre ondoren
al - aren aiñenak...!

APAIZTEGIA

Apaiztegi etxea
mutillez alai egon
amets garbietan;
otoi, ikasi, jolas,
gaztedi zoria zan
edertasunetan.

Amets bizi bat euken
biotzean saltari:
erri sa l bamena;
aren gogo leiala
larros zuri antzera
gertatu naimena.

Urtzizti ikasteak
eta otoi gozoak
ebillen bizia;
ardatz eder onetan
txairo ta zuzen joian
mutillen burdia.

1 KASTETXEA

Euzkotarren etsaiak
ezin eben ikusi
apaiz loradia;
Jaungoikozko legea
bakoitzari berea
ez eben maitia.

Erriaren izkuntza
zer zanik ez genkian
ikastaro maillan;
eta marmar ebiltzan
irain baltzak zabaltzen
min gaiztoz kanpuan.

Sinistedunak ziran,
beti, kezkaz beterik
Eleizaren aurka;
azerien lanetan
gogor, oi eben joka
etsaiak burruka.

EUZKOEI BIZITZAN

Diabruzko inguru
inpernuko laiñotan
txerren ba-ebillan;
santutasun iduriz
zelako gaiztakerik
eukezan barruan:

Ezin eben ikusi
Jaungoikoaren itza
euskaldun itzetan;
salakuntzak nunnaitik
laster jausiko ziran
apaiz eskuetan.

Kategiagaz lotuta
egoan sinismena
euskera baratzen;
zenbat min eta negar
eragin ete eutsen
euzkoei bizitzan.

MARMARIOLARI

Sedaz eta puntillaz
gorputz utsak jantzirik
ederkerietan;
utsalen utsaz dabiltz
buruak erakusten
putsaren putsetan.

Egun guztia luze,
lan eginbearrik ez,
a zan bizikera;
ondasunetan uger
gorengo pisuaren
giltz eragiñera.

Denpora, beti gaiñez,
eta buru biotzak
ezin egon geldi;
a zan euren zerua
eliza konpontzea
marmariolari.

MAR - MAR

Miñaren marmarrenak
sasiak konponduten
sugea dirudi;
zenbat eden bota dau
minen esten puntatik
lapurrak ez daki.

Ur agortu eziña
trumoiagaz batera
laiñomendin bera;
kaska buru ariñak
bota zitun gizonak
metro bi lurpera.

Aundikeri artean
oitura zirudian
kezka jokerea;
denpora pasagarri
Gotzaiñarena doaz
apaiz salatzer.

JAZARPENDU ZIRAN

Euskaldun apaizgoak
etsai ankerrak zitun
bere atarian;
mantillaz apainduta
kristau fede itxuran
era onenian.

"Nori sinistu neio
apaiz itzari ezik"
iñozkun beinbaten;
Dn Mateo Gotzaiñak
salakuntzarik aski
artu eban emen.

Erdel zale aldetik
euskaldun apaizgoa
ondo, orraztu zan;
Jaungoikoaren itza
maite eben gizonak
jazarpendu ziran.

EZIN BARDINDU

Guda zale zirenak
batzarretan ebiltzan
euren asmoetan;
aldi artan giroa
erdipurdika egon
gizon lanteietan.

Gau rtik begiraturik
guda ez zan zillegi
ainbeste odolez;
erriaren ostean
zer ete erabillen
aberaski gosez...?

Milloi bat lagun illez
dardar dagi odolak
biotza urratuz;
okerrik aundiena
ezin leike bardindu
eriotza d i ruz.

IL ZAN MAITASUNA

Gizarteko bizitzan
legez antzo jarri zan
suzko erretea;
gizonaren zentzuna
galduz ete ebillan
indarrik bagea...?

Elizak auts biurtu,
eleiz-gizonak erail
gorroto biziak...;
konbentuei su emon
lekaide lekaimeak
il etsaikeriaz...!!

A zan piztikeria
Euskalerra aldera
etorri jakuna;
basari zirudien
zentzun dana galduta:
il zan maitasuna.

BIZITZ LAGUNGARRI

Lotsakizun baltz baltza
gizabidedun jente
ta erriarentzat;
agoak bota alan
eden guztia euken
el izgizonentzat.

Millak lagunuen aurrez
sua ta eriotza
sartzen ebiltzezan;
ori zan gizon arek
ekarren janaria
itz gorrikerian.

Etorkizun larria
eskeinduten eutsen
euren jendeari;
zerk urten ete eiken
jende talde ortatik
bizitz lagungarri...?

GURA LEUKEZ

Ez dakit noraiño
lagundu izan eutsen
bizitz arloari;
gosea kendutea
gizatasun erara
izanen pozgarri.

Entzute zatar batek
gaiztakeria dakar
biotzen barnera;
oi zenbat errugabe
jausi ziran negarrez
piztol burdinpera.

Orain odol guzti ori
deika dago lurrera
maitasun indarrez;
ez dau nai gorrotorik,
ogia ta bakea,
beti, gura leukez.

GIZONDU

Atan be erri bat bazan
osoro ezbarðiña
izkuntz ta odolez;
biotz otzantasuna
eta buru argia
eriozan pozez.

Nun ikasi zenduan
gizatasun ederra
zureganduten...?
zelan ikasi zendun
gaiztakeririk bage
besteei on egiten...?

Zure arrigarriak
argi egiten eban
euzko gizadian;
egiaren indarrak
gizondu zinduezan
Aberri maitian.

APALTASU N EZ

Oi Euskalherri maite!
egia artu zendun
arbasoengandik;
egiz eratu ziñen
euskal enda bezela
bizitz barrenetik.

Euskaldun nortasuna
egizkoa dirudi
zure izateak;
"goian" xurgatu dozuz
gizonaren doaiak,
lurrez onetsiak.

Maitasunaren doia
Jainkoak emon eutsun
fedearen bidez;
zure goiko argiaz
argitu zendun lurra
giz apaltasunez.

ZUZENTASU N IAN

Euskalerra on zan,
euzkotar baten itza
ziña lez zanean;
izkuntza zan garbia,
biotza urrezkoa
Aitorren etxean.

Birau zakarrrik etzan,
egia zan gidari
euzko gizartian;
gizona *zan* anaia,
"itz egiten zanian
euskera garbian".

Baratza bat zirudin
alkartasun garbian
sinismen legian;
zerutik dator itza
euzkotarrei agintzen
zuzentasunian.

SARRI

Gizonak irriparrez
gure zelai dirdira
agertzen zidarrez;
ontasunaren garra
bakezko biotzetik
dager zorionez.

Ikasia ta lotsa
biziaren ardatz bi
jatorrenak dira;
illuntasunak ez dau
frutu onik elduten
eguzki gisara.

Argiaz ta egiaz
euzkoa bereiztu zan
gizon arrigarri;
euzko giza semea
gizontasunagaz zan
bat egiña sarri.

NAUSITZARGO

Nausitzargo aldia
erriarentzat ez zan
gogoz koa izan;
aundikerizko garra
lotsagarri zirudin
euskaldun baratzan.

Euzko izakera
ez da goikeri zale
bere nortasunaz;
gitxiren zapalketak
ez dau zuzentasun i k
giza zoritxarraz.

Bizi eskubidea
danentzat da bardiña
Jainko eskuetan;
gitxiren goikeria
askoren ondamena
ez dago legetan.

GIZA LOTSAGARRI

Erregek alde eban
erritik atserrira
bakearen bidez;
Demokrazi bidea
zaratatsu eldu zan
erri poztasunez.

Emen ikusiko zan
askatasun artean
gizontasun barri;
ez danik ezin emon,
daukana emon bear
egi argigarri.

Oi! zelako egunak
jazan erain zituen
giza bildurgarri;
jauntxoen jaunkeria
nunnaitik agertu zan
giza lotsagarri.

URREZKO SARIA

Naspilkeri larregi
ebillen gizartean
amets usteletan;
guztia zan lan itza,
baiña alperkeria
ebillen putsetan.

Zozo txori argiak
neke minik bageko
garitza nai eben;
pikotada bakoitzaz
zortzi egunerako
goseak urrintzen.

Gaur, lan pizkat egiñaz,
biar, etzi, oporrak,
bizitza alaia;
berez emon daiala
soloak eta miñak
urrezko saria.

BEROAK

Gudaren aurrea zan,
naste-borraste aski
egon gizartean;
dana eskubidea
besterik ez entzuten
askoren artean.

Eginbearra zer zan
ezin eben ulertu
langille morroiak;
dana oporketa
itxas arrotu legez
ikusi eziñak.

Ondoren eriotzak
gorrotoa geitzeko
erarik onena;
ai! gizadi kaskarra...
nora ezean dabil
erreta beroak.

GU DA AURREAN

Lengo damu bidea
deika egon lurrean
gizonak i lduri k;
giz-eskubidea da
lurra menperatzea
bizi biurturik.

Gizonen aurka dago
domu larreg[^]keri
zentzun gabekoa;
lurraren ondasunak
sortzez dira danentzat
egi bidezkoa.

Aita baten semeak
etxe jaubegei dira
lege bardiñean;
danak izango dira
langille errime
irabaz bidean.

GUDA AURRETIK

Larregikeria len,
larregikeria gaur,
ez da egizkoa;
giza maltzurkeriak
ezin leike zuritu
bidegabezkoa.

Iñoiz ez da zillegi
anaia zapaltzea,
ez gosez iltea;
erruak zigorra dau
beraren diñakoa
negurriz betea.

Zuzentasun bidea
jokabide danetan
gura dau biziak;
otsorik ez dogu nai
gizartean sartuta
urratzen bideak.

BIZKAIAN

Bizkaian aritz bat zan
aldiak eratuta
ezaugarri antzo;
zugatzaren gerria,
erriaren irudi,
dana giarrezko.

Zugatzaren orriak
izkuntzaren abotsak
zirudien dizdiz;
eguzkia sorkeran
aritz eta itzak
urrezko olerkiz.

Arrats-beran aritza
ta gizonen indarrak
atsedentzen doaz;
bakea izarretan...
nekeak arintzeko
gabaren giroaz.

ARITZ INGURUAN

Aritzaren inguru
lan ta lan ebillen
enda izkutua;
gizon zintzo, langille,
biotzean eroen
arbasoen sua.

Erriak arrituta
daukoz euzko endak
gizontasunagaz;
erriak zurtz eginda
gizonak sortu leiken
argitasunagaz.

Eguzkia zirudin
erri onen buruak
argitasunean;
argitik argi dator,
burutik zuzentasun
euskaldun etxean.

ENDAREN LURREAN

Erri onen bakea,
bere sortzez etorren...
enda autatua;
euskaldunaren zera
maitasunezkoa da
berezki artua.

Izarrak ortzian lez
euzkoak argi dagi
uri batzarrean;
eguzkiak argia...
euzkotarrak egia
ebillen lanean.

Euzkoak ez dau izan
guda garramurarik
bere biotzean;
bakea eta lana
ditu bere asmoak
endaren lurrean.

ARITZ

Ariztegi aundi bat
zirudian Eukadin
euskaldunen batzak;
aritz gazte Ierdenak
arbasoei begira
euskerazaleak.

Ariztian **ez** egon
ez ordi, **ez** (apurrik
mendi orlegian;
izadia bera zan
egizale nausia
maitasun utsian.

Aritzaren eskurrak
gero eta geiago
ugaritzen ziran;
euzkotarren semeak
ortzeko **izar** antzo
euskaldun baratzan.

ITZEZ ARGITURIK

Euzko jokabidea
itxasoa lez zabal
doa arrigarri;
egia dau gidari
biotzez daroana
errien pozgarri.

Euzko garbaltasuna
egi sustraitik datar
bakeaz batera;
zuzentasun zaleak
edertasun jarioz
agertzen onbera.

Euzko seme leialak
gudaren etsai ziran
bizitz sorreratik;
on eiteko jaio zan
etsaikeririk bage
itzez argiturik.

LEGE BILTZARRA

Euzkotar bialduak,
Gernikan agur egin
ta doaz lanera;
egun zoragarria...
Euzkadik bere gogoz
gozartu ebana.

Gizonik oberenak
burua eskeinduten
aldara aurrean;
erriaren mezua
agertu bear dabe
Lege Biltzarrean.

Lauretan itzaldia,
argia eta sua
erioen itzak;
erri ta autatuak
alkar dardaturik
ar zitun Gernikak.

AGU RTU ERA

Arratsalde aretan
euzko lurra dardaraz
egon zan Gernikan;
geroari begira
itxaropen suagaz
erri omenetan.

Izlariak gogotsu
erria, antziz, adi
Aberri miñetan;
Pildainen itzaldiak
arroto zitun lurrak
biotz minduetan.

Argi bat dator gero,
maitasun goriagaz
azaltzen egia;
Agirre, zer daukazu
olan, lilluratzeko
euzko gizadia'..!

GERNIKA

Egun aretan zer zan
gozartu nai dodana
Gernika errian?
anaitasuna, pozez,
bakea ezti antzo
anaien artian.

Egunik oberena...
goizak arritu nindun
Mezaren orduan;
egiz bizi zan Kristo
gogo onez gurtu zan
aldara gaiñean.

Dana zan maitasuna
fedezko ixil artan
Gernikako plazan;
otoia zan bakarrik
entzun nai izan zana
euzkoen baratzen.

EUZKO GARRA

Euzko garra ba doa
gabaren illunpian
ausnartzen bizia;
Aítarren seme gara,
lur bat, izkuntza bat
izanik guria.

Gizadi onen garra
garbi ta zindoa zan
mendi gallurrean;
beraren nortasuna
aritzaren irudi
erri batzarrean.

Nork goraiatu leikez
egizaletasuna
ta zuzentasuna?
or dago euskalduna,
beren biotz maitean
dau askatasuna.

LANGILLEEN ALDEZLE

Euskalherri maiteak
gizon gartsuak zitun
beren abadetan;
erria ta eleiza
alkarrekin ebiltzan
euskeradunetan.

Abadetza langintzaz
bat eginda egoan
Ebanjelioan;
"pobriei laguntzera
etorri naz ludira",
Josuk esan eban.

Euskaldun abadeak,
zintzoro, artu eban
Jesusen esana;
langilleen laguna
eta aldeslaria,
beti, izango zala.

LANA ALDEZTU

Jainkoaren gogoa
ebillen abadetan
gure Euskalerrian;
euren asma onena
izar gorri antzera
ebillen aurrian.

Jainkoaren semeak
nork itzi bertan bera
abade izanik...?
euskaldun leiñargiak,
Kristoren maiteenak,
nork itzi bakarrik...?

Antzokirik antzoki,
plazatik plazetara
otska jardun eben;
Jesusen esana zan...
pobriei laguntzea
lana aldestuten.

EUSKALDUN GIZONEI

"Lotuak askatzera"
ots egin eban Kristok:
eldu naz mundura;
egia ta zuzentza
ekarri zitun Kristok
gizonen adora.

Egiazko apaizak
Jesusen abots ziran
Eban jel ioan;
biotz minduak poztu,
zapalduak askatu
zan euren asmoan.

Egiz urratu ziran
bake itza emoten
biotz damutuei:
egia ta askatasuna
zapalduarik egozen
euskaldun gizonei.

BETOR ARGIA

Izarrak zirudien
geldi egon ezinik
lurrean dizdizka;
Jaungoikoaren deiak
bultz eragiten eutsen
biotz barrenera.

Gogorra da izan be
Jesusen arazoa
lur azpiratuan;
arek gosez ilten,
besteak kate i pea n
miSeri estuan.

Or, landu eben lurra
itsuak argitzen
ta gerrak esnatzen;
uxa beitez laiñoak,
betor argitasuna
zeruak zabaltzen.

NOZ ARTE

Nortzuk dira minduak...
ta nortzuk zapalduak
Aitaren etxean...?
nortzuk dira itsuak,
nortzuk nekapetuak
euskaldun lurrean...?

Lurra kendu dautsue,
berez, zeurea zana:
min emon dautsue;
nortasuna ostuaz,
biotzaren erdian
zapaldu zaitue.

giza arrokeria
eta aundikeria
zapaltzen dabiltzaz;
noz arte izango da
gaiztoen garaipena
txikiak lertuaz?

ZAPALDUEN...

Zapalduen errira
Kristo urreratu da
apaizaren bidez;
Kristok iragarria
apaizak esan bear
dau askatasunez.

Erri askatasunik
ez eban izan Kri stok
Judea aldean;
iltzaille bai-litza
odoletan i 1 eben
Kurutzta gaiñean.

Zu, apaiz euskalduna,
jazarpenduko zaitu
euzkoen etsaiak;
erriaren egia
jagoten dozunean
an, dira iltzailleak.

AGIRRE

Gizon leiñargietan
izarra zan bat ba zan
bere asmoetan;
erria ezagutu
ta egiz maite eban
bizitza lanetan.

Fedeak eraginda,
gogor, arduratu zan
langil arazoan;
anai eban beretzat
langillero guztia
itxaso alboan.

Oiñarri eukazan
jokabide danetan
bizitz gora-beran;
gizontasuna lenen
ta onen elburu lez
fedea barnean.

LANTEGITZA

Lora eta guena
Joseba Andoni izan zan
lantegi artean;
Bizkai uri barruan
Bilbotar jaio ziñan
euskaldun etxean.

Iturri ederrena...
len gurasoetatik
edan zendun ura;
euskal guraso arek
ondo, ezar eutsuen
giza egitura.

Gizatasunak dakar
egi ta maitasuna
gizarte bidean;
lur landua bear da
baratza loratzeko
sasoia danean.

JOSEBA ANDONI AGIRRE

Beargin esnakeran,
sasoirik onenean
munduratu ziñan;
izar bat bear eben
gizatasun jantziaz
euzkoak ludian.

Zuk artu zendun doa,
jainkoak, alan, naita
ez ziñan, geldi, egon
zure almen guztiaz
on zana egiteko.

Zabaldi ederrean
itxasontzi bat dago
ur gaiñean dizdiz;
zure gizatasuna
itxas albuan egon
lantegian argiz.

LANTEGI BURU

Amets barriak datoz,
asmo bikaiñenak dira
gazte arenean;
guztiak ziran gizon
anai eta langille
edertasunean.

Buru barik ez dago
etxeari eusterik
gizontasunagaz;
argia eskatzen dago
etxearen bizia
leio barriagaz.

Langille barik ez da
lantegirik sortuten
itzen babespean;
esku, buru ta lana
irokoitz eder onek
diardu lanean.

BURU TA LANGILLE

Eguzkia izpitsu
eta aizea garbia datoz
itxaso aldetik;
osasuna dakarre
itxaropen argitan
egoak zabalik.

Iñor ez dago geldi,
adorez diardue
leoia ba-litzaz lez;
bakoitzak emoten dau
beren almen guztia
frutuaren ordeaz.

Lana, aurrera, doa,
giza legeaz zainduta,
al kartasunean;
poza dario itzak,
irri begi argiak
anaitasunean.

DANAK BATEAN

Sua sasietan lez
gizonak darabille
lantegian garra;
ez dago atzerarik,
euskaldun gizon arek,
alean, bearra.

Danak dira txapeldun
euzko anai antzera
lanaren garragaz;
lanak sortu bear dau
bakea ta bizia
alkartasunagaz.

Gizonen zurtasunak
askatuko dau lurra
lanaren bitartez;
Agirren lantokian
gogoan zan gidari
gizon ontasunez.

LAN ARAZOETAN

Aldien zearretan,
aizeak, alakoak,
ibili oi dira;
Agirreren sasoian
aize barriak datoz
lantegietara.

Itxasoa lez zabal,
zan Joseba Andoni
gizonen aurrean;
ez zan ikaratuko
gizona goraltzeaz
irabaz bidean.

Jendea arrituta,
zer ikusiko ete
pentsabide artan;
nora ete goaz
barritasun orrekin
lan arazoetan...

PARTAIDE

Koldarkeririk ez da
gizon aundien buru
eta biotzetan
errotariak, beti,
urun zuria eio
zorro bardiñetan.

Gizon gizon direnak
euren nortasuna ager
egiten bitartzez;
Agirren lantegian
gizonak anai ziren
giz alkartasunez.

Anaiak anal legez,
Agirrek egin zitun
irabaz partaide;
pozaren poz erioz
euzko seme jatorrak
odolez senide.

GIZONEN OMENEZ

Bizkaian agertu zan
lantegi eredua
langil gidaria;
euskaldunen arteko
Agirre jaun zindoa
bidari argia.

Burdiñezko lerkaia
jausi zala zirudin
itxas bazterrean;
olatuak dardaraz
bits zuri biur ziran
arkaitz gogorrean.

Izadi dana dardar
gizona poztasunez
itxaso ta lurrez;
gizadi danarentzat
ez eben besterik nai
gizonen omenez.

AGIRRE JAUNA

Bizkaitik urriñera
argia zabaldu zan
langille artean;
poza doa sendira
garia soloan lez
ogia maiera.

Euskaldunen zentzuna
ez dabil zoro antzo
zarat usteletan;
nor zaran ager dozu
egite aundienaz
langil jardunetan.

Oinik oin daroazu
bizia marratuta
urrezko egitez;
egintz askoren arte
ederrenetarikoa
langilleei biotzez.

JOSEBA ANDONI

Mundua adi zeunkan,
langillera pozez,
etsaiak negarrez;
zure gogo barria
gero ta sakonago
indartzen sustraiez.

Gogoan darabillez
askok eta geiagok
zure egiteak;
arrigarriak dira
leoi antzo egiñak
adorez betiak.

Langille-buru eta
endore izatea
bat ein ziran zugar;
bitarako indarra
gaiñezka eriozun
gizon zuzenagan.

EZ EBEN AZTU

Iñoiz ez eben aztu
erri ta atzerriak
zure irudia;
buruz eta egitez
munduaren aurrean
ain zan leiñargia.

Guzurrak ez zinduzan
amorruz atzipetu
maltzurkerietan;
egia, argi, zeunkan
izarra ortzian lez
jardunaldietan.

Buru, biotz, egite,
zutoin arrigarriak
dira gizonetan;
ondo darabiltzanak
ezikoitu erriak
giza onbidetan.

AGIRRE AURRELARI

Oi! Euskalerrri maite...
zugañ dabil argia
bazterrak argitzen;
arbasoen egia
itxas aldetik dator
erria indartzen.

Ondamuz dabiltenak
ez dabe nai egirik
langille arloan;
biotza kiskortuta
ez dabe errukirik
lanaren soloan.

Gogoan darabille
legenarraren antzo
zuk egin zenduna;
ondasunak zatitu
izerdien gisara...
giz alkartasuna.

ATSU RLARI

Lurrera adi nengon,
solo, mendi zelaira
eta itxasora;
dana nenkusan orlei
biziaz indartuten
bake irudira;

Udabarri goizian
atxurak artu bear
lanerako deia;
lurak orbiztuten doaz
aski eta mubittak
dager belarria.

Lugiñak ba-dau lana
belarriak moztuten
bedar gaiztoari;
lurrean etsai koko
jausten doaz lurpera
atxurrez il-zori.

ARIZTIAN

Ariztian gizonak
izketa samurrian
trontzazko serrari;
aritzik ederrenak
abar-orto artean
mun egin lurrari.

Txoriak abar-miñez
alboko zugatzean
negarra dario;
lengo urtean, antxe,
umatze maitetsuak
abes txorrotxio.

Udabarrian, goizez,
alboko aritzean
ezkuntza izanen;
txori soiñu alaiak
arrats-bera eztian
barriro entzuten.

ARRANTZALIAK

Goia urdiñez dago
izar guztiak ñirñir
zerua pozkari;
arrantzaliak gora,
lanari ekin bear
itxasora ad i;

Agur itxaso eztia
nire amets kutuna
urtara begira;
bakea eta lana
adu onaren bidez
betor uretara.

Adar deia entzun da,
izontziak ba-doaz
urak ebagiaz;
euzko arrantzaliak
lanaren oroimenez
i rri katzen pozaz.

ALDUNAK

Euskal gizonak aldun.
Lege Biltzarrera doaz
erri ordezkari;
jakiturizko gatza
daroe Batzarrera
gizonen gidari.

Gizontasuna, eurrez,
darle euzkotarrei
burutik oiñera;
euzko eskabideak
sendoro agertuaz
Aldun Biltzarrera.

Danetan, beti, gizon,
eguzki berbera lez
eder argizale;
euzkoen egiteak
antxe, geratu ziran
itz adierazle.

BIOTZ DEUNA

Euskaldun leiñargiak
ba-doaz Madrillera
Lege B i Itzarrera;
otso arte dirudi
giza legerik ezak
adardun antzera.

Orroa ta karrazi,
idien burrukea
batzarrak iduri;
batzar nasgarri artan
gizatsu eta kristau
euzkotarrak itz dagi.

Bilboko Biotz Deuna
lurperatu nai eben
Kristoren etsaiak;
baiña odol guztiaz
eutsi eutsen Kristori
euzko erraldoiak.

BURU ESKUAK

Euskalerra gurea
bakezko ametsetan,
beti, sendotu zan;
gau ondoren eguna
bear barriak deika
egun argitzean.

Eguzki ta euria,
lurrak ontzen dabilta
alkar ulerturik;
biak datoz ortzetik
senar emazte legez
lurra askaturik.

Iñoz ez dagoz geldi
atxur, alper, area,
ez eta besoa k;
euzkotarren endea
lanerako ar zitun
buru ta eskuak.

GIZA IRUDIRA

Aitor, zer emon zentson
zure enda zarrari
eta izkuntzari...?
Ain dira gizontsuak
jakituriz jantziak...
izarrak iduri.

Jendearte aundietan
euren gizatasuna
eguzkizkoa da;
argitasuna dauka
euzkotarren egiak
itzak eraginda.

Biotza sutan dauka,
maitasunaren garra,
urrez, dariola;
iñoz ez da berekoi,
berez da maitegarri
giza irudira.

AMESLARIA

Euzko endaren itza
ain da eder garbia
edur zuria lez;
egia oroz goitik
izan eban euskerak
bere edergarria.

Zelai ta mendietan
artu zendun bizia
lorez igurtzia;
urretxindorra zeunkan
goizaldian poztuten,
itz ameslaria.

Aitorren izkuntz zarra
euzkoen diñakoa
jakiturietan;
izkuntza ta gizona
biok bat egin ziñen
euzkotar lurretan.

OMENETAN

Eder sakontasuna
odoletan daukazu
euzkotar semea;
gorputz atal guztiak
ontasun erioka
zoramen betea.

Buruz argia zara,
biotzez maitetsua,
izarren antzera;
zure gizatasuna
nork leuken ludian
giz uren erara?

Bizitzaren egarriz
gizon langille zara
solo ta.miatan;
zure asmo bikaiña
lana besterik ez da
sendi omenetan.

LAN ESKE

Lana eta bakea
nai ditu euskaldunak
bizitza gidari;
arduraz, dabil, beti,
bizitz arazoetan
solo atxurlari.

Mietan, zintzo, dabiltz
gorputzak urratuta
ekiñaren garrez;
alperkeriak daukaz
etxea illuna ta
umeak negarrez.

Euzkotarren biotzak
gaitzik ez dau onartzen
sendi elkartean;
maitasunen kabia
lana eskatzen dago
zuzentza bidean.

EUZKOEN LURREAN

Bizia burruka da...
onaren burrukea
gaiztakeri aurka;
lurra ta itxaso
langille deika dagoz
janari opaka.

Euskalerriko miak
burdin opaka dagoz
euzko semeari;
ixil dagoz mendian
guda zarata bage
deika gizonari.

Izadiak ez dau nai
burdiñen zaratarik
bere biotzean;
gizon ta izadia
bake zaleak dira
euskaldun lurrean.

BAKEZ DAGOZ

Mendiak bakea nai
itxas ta soloak lez
udalen goizian;
ixiltasun eztia
landa orleiak maite
illun-abarrian.

Egaztiak ba-doaz
maitetsuki otara
atseden gozora;
illargia ba-dator
ortzi urdiñez zear
lurra argitzera.

Menditik bera datoz
ur gardenak saltari
bits zuri artian;
ametsetan dabilta
arri urez landuak
aldatz barrenian.

BAKEA NAI

Oi zein pozgarri dan
txori egazkadea
askatasunian;
oi zein atsegia dan
urretxindorra kantuz
zugatz adarrian.

Maite-mindurik dagoz
udabarri eztian
txori kantariak;
alaia da baratza
eztiz eta abestiz
igurtziz aidiak.

Bakearen ametsak
maite ditu biotzak
odol gorrietan;
baserri maitegarri,
loa gozartzen zagoz
izar dizdizetan.

ERRI EDER

Euzko erri maitea,
zentzunak zaindu zaitu
edertasunean;
otzantasuna dozu
zure iragarlea
gizontasunean.

Egizalea zara
argi berbera legez
laiñoak urratzen;
gizadiaren ona
nai zenduke danentzat
zauriak arintzen.

Erri eder bat zara
argi eta biotzez
alkaturik itza;
sinisgarria zara
egite onen bidez
argituz bizitza.

GUDA GERTAERA

Azpi jokoa dabil...
ezpata ta dirutza
ixil, batzarretan;
erkalaren jokoa
mingarria jagoke
euren asmoetan.

Ezpataren indarra
jagon gura eukien
burdin zapalketan;
erria menperatuz
norbera nausitzeko
leoi jardunetan.

Nauskeri egarria,
iñoz, itzal eziña
eroen biotzez;
ondo bizi naiagaz
asetu nai zituen
barne deiak lurrez.

GU DA OTS

Milla bederatzireun
ta ogeta amaseiko
garagarrillean;
Patxi Frankon abotsak
gudara ots ein eban
udaren erdian.

Dei ori egiteko
etzan giza makala...
ots bildurgarria;
negurtu izan ba-leuz
ondorengo negarrak...
ta illen milloia...!

Baiña amets aundiak
gabeko odeietan
trumoiaren otsa;
benetan arrigarri,
zoritxarrez mingarri
ainbeste eriotza.

ALARAUA DARIO

Gizonak ez ekien
gudaren otra zer zan
bizitzaren aurrez;
ez dago gaitz bardinik
erriak ondatzeko
odolaren miñez.

Odola uxertzeak
berez dauka samiña
bizia galdurik;
dana kenduko dautso
gudeak gizonari
arnasa usturik.

Izadi ta gizadi
suak kiskaltzen ditu
inpernu gorrian;
alaraua **darlo**
mendi goi bizkarrari
eriotz miñian.

BURUA GALTZEA

Giza biotz ankerrak
ta buru burdinduak
alkar sutu dira;
Itxutasuna goian,
sapoa biotzean
abere gisara.

Zenbat ta su geiago
burua zoroago
aize usteletan;
biotza karrazika
dana deuseztzo nairik
suzko eriotzan.

Guxtiz penagarria
giza-galdumendia
lurrean sortzea;
zoratuta ez daki
zer ezbear dan bere
burua galtzea.

ERIO TZ USAIÑEZ

Gudazaleak otska,
ateak zabal ditue
iskilla karraziz;
kale zear doazi
euren asmo baltzetan
illak sor-eraziz.

Erriak arrituta,
senian ezin sartu,
guda otsetara;
kalean goitik bera
erri seme odola
ba-doa ibaira.

Poztu eiten ete da
iltzaillearen itza
gizonak ilteaz...?
biotza gogor dauka
arri-burdin antzera
eriotz usaiñaz.

BIURTUZ LURRARI

Ez pata eta burdin
goitik bera lerkaiak
ditu bere arma;
Aprika lurra itzi
ta odol beroagaz
doa Burgosera;

Patxi, gorputzez txiki,
baiña biotz adorez
lurraren galgarri;
nork il ete zituan
bere guda lagunak...
il ziran, bai larri.

Bost ezpatadun ziran
Burgosko lur gaiñean
guda zuzendari;
batek ausi zituan
beste lauren ezpatak
biurtuz lurrari.

ODOLARI BURLEZ

Ezpata, burdin, lerkai
ekiñalean dabiltz
lurrak zulatuten;
biotzen gorrotoa
noraiño sartu zen
erriak austuten.

Baiña kezka bat dago...
guda zuritu bear
da gizadi aurrez;
baiña ainbeste odol
nork zuzen etzi leike
gizonen samiñez...?

Mendi, uri ta baso
baserri ta lantegi
lurrera doazi;
eta kanpaiak otska
dorre gaiñean, gogor,
burlez odolari.

SUAREN MENPEAN

Guda zaleen barruan
azpijokoak darrai
zurikerietan;
ainbeste samin deika
ezpataren zauriaz
belarri mintzetan.

Izenik politena
sortu dabe edertzat
etsaigo baltzean;
odola ta Kurutza
ikur-itizat jarririk
ezpata gaiñean.

Kurutz-guda izena,
lurra arriturik,
dabil bonbarteian;
millak giza-sumeak
zoritxarreko lerkaiz
suaren menpean.

ERRU KI GAB ERI K

Zuzena bera dana,
estalgitzat jarrita,
darabille itzez;
biziaren Egille,
erruki zakizkigu
zure maitasunez.

Gizonak ez dakie,
zer gaitz egiten daben
maltzurkeriagaz;
zure izen santua
ezin leike iraindu
guda odolagaz.

Guda aurrera doa...
ez dago lur bazterrik
odol busti barik;
gorrotoak nai ditu
bazter danak suntzitu
erruki gaberik.

BABESTU NAGIZUE

Euskaldunak arduraz,
Erromara doazi
sinismen bidean;
guda mingarri artan
erria zaindutea
zillegi ete zan...

Baiezkorra izan zan
euzkoak eginiko
eskari erantzuna;
oi Euskalerrri maite...!
eskubide zaintzea
zuretzat zuzena.

Maite dozuen lurra,
Euzkadi kementsua
deika dago semeei;
etsaien ezpatatik
babestu nagizue
dirautse nausiei.

EUZKOTAR INDARREZ

Lurrez ta aidez datoz
Euzkadiren etsaiak
bitsa dariela;
apurtu eta erre
egingo eben suaz
euskaldun garbala.

Kurutza dabil itzez,
gelago, lur onetan
jendea bildurtzsen;
Kurutza ta eriotza,
guzur eta egia
ez dira alkartzen.

Irratiz ta izparrez
edena jausiko da
erri onen gaiñera;
ain ziñan zentzunduna,
egiaren jabea
euzkotar indarrez.

BARNEAN SORTURIK

Euskalerriko sena
euskaldun bakoitzaren
zentzuna itza da;
euskalduna astuna
da bere pentsamentuz
lotseak zainduta.

Egizaletasuna
izaeraz daroa
buru biotzetan;
euzko gizontasuna
zuzenbidetik dator
itz irriparretan.

Arinkeriak ez dau
euskaldun biotzean
erneteko (urrik;
erne sakontasunak
sustrai obeak daukaz
barnean sorturik.

OINETIK GORAIÑO

Arrigarria zara
euskaldun ontasuna
gizonen aurrean;
gudarik ez zendun nai,
asarrea edena
jatsu biotzean.

Egiaren indarrak
egin zaitu zaran lez
eguzki antzeko;
argia dariozu
itzean ta senean
lurraz jabetzeko.

Ez dago lur gain ontan
irudi obegorik
maitasuna baiño;
zuk saltzen daroazu
irriparren artean
oiñetik goraiño.

GIZA GOGO TXARREZ

Espetxerik espetxe
doa euskal apaiza
egi ezaugarri;
bere lurra maite dau
biotz zabaltasunez,
egi maitegarri.

Erri eskubidea
ezin leike baztertu
el iza gizonak;
pekatu astuna da
erria zapaltzea
ta bere legeak.

Zintzotasuna gaitik
biderik bide doaz
nora-ezean lez;
jazarpenduak ziran
Jesus Beraren antzo
etsai gogo txarrez.

AGINTZAR ARTEAN

Oi zein ederrak diran
bakearen mezular^{ak}
argia zabalduz;
oi zein zentzundun diran
Ebangelari oiñak
ona adiratuz.

Erriak maite zitun
abade odolduak
egiaren bidez;
zuzena indartu zan
odol aren z^{ak} ñagaz
euskaldunen aldez.

Ainbeste eredu on
amari eskeinita
jazan zenduezan;
otsoak ez eutsuen
maitasun ori austu
agintzar artean.

EGI OMENEAN

Dana emon eutsen
jaungoikoari eta
anai bizitzari;
epaizaren asmoa
zan lez... emotea zan
bere erriari.

Serbitzeko egin zan
Kristoren ordezkari
apaiz euskalduna;
Kristoren autatuak
izan ziran kurutzan...
zoriontasuna...

Fede leialtasuna
itzi eben lurrean
neke lor artean;
maitasun aundia zan
biotzean eukena
egi omenean.

BIOTZ BARRENETIK

Euskaldun apaiz aurka
zer euken biotzean
sorterri etsaiak...;
berezko legea zan
erria maitatzea
ta beren sustraiak.

Kurutz guda izanik,
zelan alkar leitekez
Kristo ta odola...?
guzur itzak al ziran
gizon aren miñetan
atsa eriel...?

Aurrean darabillez
eta laguntzarik ez
iñungo aldetik;
leoi artean legez
zaindu eben fedea
biotz barrenetik.

BA DOAZ

Eundezka apaiz ziren
burlez erabiliak
ezpata puntetan;
izen ona kenduta
guzur asmakizunez
egun larrietan.

Ezin naikotu ziran
apaizen samiñagaz
biotz ankerretan;
txakurrak ez ainbeste
gorroto pobreaki
etxeko atetan.

Guzurrez sortutako
entzute txar ondoren
ortik zear doaz;
ez euken jagolarik,
bialdu, baztertu ta
ba doaz Jaunagaz.

GIZATASUNA

Kristiñau ta euzkotar
erri maitale ziran...
egizko bizia;
biotza euken garbi
gorroto (oietatik
ta arima zuria.

Gizona salatzea,
iñoz, ez zan zillegi
euskaldun aretan;
kristau erailteko,
bizia aundia zan
abertzalietan.

Jainko ta Lege Zarra
euren asmoak ziran
bide zuzenean;
burdiña ta lerkaiak
etziran euskaldunak
gizarte aurrean.

ASKATASUN ARGIA

Aibeste abertzale
espetxetan ostera
osasuna galtzen;
ainbesteko edena
ete euken etsai arek
anaiak zapaltzen...?

Gizonik oberenak
ezagutu nituan
zigorpean ilten;
gorrotorik ez izan
sendiari esanaz,
biotzez parkatzen.

Euskaldunen legea
zuzentasuna eta
maitasuna ziran;
askatasun argia
nai eban euzkotarrak
emen ta zeruan.

EUZKOEN ERRIAN

Euskaldunen Euzkadi
lurrez eta gizonez
izan ziñan argi;
odola zeunkan garbi
i ltza i l leen gorrototik
bakezko irudi.

Mendian orlegia,
biotzean urrea,
buruan argia;
iru oiñarri dira
erria goratzeko..'
au da itz zoria.

Arasoen egia,
Euzkadi da beria
nortasun garbian;
izkuntza bat eukan
bera lez argia
euzkoen errian.

GORAGO

Euskaldun apaizgoa
zer zendukan zuregan
ain gorrotogarri;
iñor ez zenduan il,
ezer ez zenduan ostu,
zergaitik ain mingarri...?

Egizko zure itza
itzalgarri izan zan
gizonen aurrean;
zure zuzentasunak
bildurra sortu eban
euzkoen lurrian.

Erri bat ezi zendun
aritzik oberena
baiño zuzenago;
erri onen argia
aritz adarrak legez
gero ta geroago.

Agirre Lendakari,
erriak autatua
euzko zuzendari;
zure almen orretan
gizandi baten antzo
zara arrigarri.

Berez artu zenduzan,
zerutar ondoren lez
giz-almen ederrak;
argia ta biotza
gizontasunagaz bat
gorenengokoak.

Euzkadi zeurea zan
ta Euskalerrarena
biok bat eginda;
erritar gar bizia
itzez batu zenduan
egiak esanda.

GAZTE EUZKOTARRAK

Alako gaztediak
erraldoizko iduri
Aitorren lurrean;
arkaitzetatik artzen
euzko sendotsuna
giza biotzean.

Mutil areen argiak
zentzunez igurtziak,
urra z i rud i n;
oldozmen egizkoak
zeru izar antzo
itzez argi egin.

Gazte bikaiñagorik
ezin eikean sortu
ludiko naimenak;
argi ta maitasuna
alkartuta eukazan
gazte euzkotarrak.

Gizontasunez zindo.
Leialtasunez zintzo
zan zure bizia;
zure nortasun barri
ba-ekian etsaiak...
zoritxar bidia.

Zenbat burle jausi zan
zure gizontasuna
iraindu gurarik;
erri eskubideak
bestu nai zituezan
itzez zapaidurik.

Zure gizatasuna
ezilkortu egin zan
Euzkadi guztian;
zure itz argitsuak
egi indar erion
euzkoen artian.

OTS

Guda ots samingarri,
zure baitan dozu,
gorrotoz, odola;
zerk sorrerazi eban
gizonen zoritxarra
negar eriola.

Euzkotar gaztedia,
zintzoa ta gogorra
arkaitzen antzera;
benetan maite eben
Euzkadi sorterria
Aberri gisara.

Lurretan oberena,
gizonez leiñargia
zan euzko kabia;
frutuak alan bear,
lora onen semea
bai zoragarria.

EUZKOTAR GAZTEAK

Irrintzia entzunda,
uri, errietatik
doazi mendira;
arriskueta dagon
ama aberriaren
bizia zaintzera.

Ura zan gaztedia,
leiala ta zindoa
amaren oiñetan;
areen buru garbian
ez egoan kezkarik
mendi tontorretan.

Sinismenez indartsu,
errizaietasunez
ta adorez betiak;
erriaren egia
odolez zaindu eben
euzkotar gaztiak.

ARIZTIMUÑO'TAR JOSE

Erriaren izkuntza
ezin eben ikusi
euzkoen etsaiak;
alderdi danetatik
il nai eutsen arima
etsai gorrotoak.

Zu, euzko leiñargia,
garaiz, konturatu ziñan
lupukeri ortaz;
zure jakituria,
gogoz, eskein zeuntsan
gorputz ta arimaz.

Izarretan izarra,
duintasunez, ziñan
euzkoen izkuntzan;
ondo, goratu zendun
"Aitorren izkuntz zarra"
semien bizitzan.

Kurutz guda izenez
gaiztakeri baltzenak
jausi ziran lurrez;
gorrotoa ekarren
biotza gorrituta
odolaren garrez.

Zorigaizto orduan
itxasoz jausi ziñan
etsai erpapean;
otsoak eta leoiak
eldu ziran zure gain
odolen gosean.

Itzezko ekin miña,
lenen samintasuna,
narraz erabi l i az;
gero dator odola
gorputzaren bizia
tiro-illeraiaz.

Gizon arrigarriak
Euzkadik izan ditu
beren edestian;
erri au zentzunduna
izatez ta gurariz
da bere lurrian.

Ariztimuño Jose,
Jaunak orni zinduzan
izarren antzera;
buruz eguzki zihan,
biotzez izar sua
giza ara-bera.

Zure gizatasuna
arkaitzen goitik egon
lurrera begira;
ta lurra zure **adi**
argiak artu nairik
gizonen **erara**.

ARIZTIMUÑO

Maite zenduan lurra
illunpetan zenkusan
kateiaz lotuta;
egiz, erruki ziñan
ama bat ikusirik
burniz zapalduta.

Biotzak dei egitzun
larri aldi artatik
ama askatzera;
euzko langille aldez
eleiz irakatsia
zabalduz lurrera.

Egi zuzentasuna
naí zendun sendientzat
lege onenean;
beartsuei on eiten
bizia urtu zendun
gizarte aurrean.

ONAINDIA 'TAR ALBERTO

Santa Eufemiako
arkaitzen barnean
ura zan izlari;
iturri garbi arek
gozatu eutsen miña
millak gizoneri.

Iturri bat bear zan
Euskalerriko landan
ur gardenagaz;
gizadi egarria
asetuteko duiña
egizko itzagaz.

Begira egon lurra
nun, jaioko ete zan
egi izlaria;
minduen egarria
asetuko ebana,
itz arrigarria.

ALBERTO

Eguzkia eder da...
mutillak ametsetan
maite dau argia;
atsedena **darío**
eguzkira begira...
amets irudia.

Mendi gaiñera doa...
egunsent¹a dator
berari begira;
zenbat ikasi eder
aurkeztu ete jakoz
biotz barrenera...

Orain ezin ikusi
geroak zer dakartson
euzko gizadira;
amets bat dau barnean
abade izatea
erri otseintzara.

ONAINDIA

Abadetza eldu da,
gogoz ta maitasunez
arturik argia;
burua ta biotza
erabili nai ditu
argitzen egia.

Bizitzaren zoriak
langilleen a rtera
urreratu eban;
ametsik aundiena
giza beartsuenei
on egitea zan.

Gizon erraldoizko bi
AITZOL ta ONAINDIA
urduri dabiltzaz;
erriaren bizia
gora jaso nai dabe
alegin guztiaz.

ARIZTIMUÑO TA ONAINDIA

Giz erraldoi aundiak
gizartera doazi
ametsik onenaz;
eleiz irakatsia
lantegietan sartzen
lana goratuaz.

Lan arazoetako
giza eskubideak
agertzen ebezan;
dana zan agirian
ezeren bildur bage
langille aurrean.

Euskaldun gizadiak,
ondo, merezi eban
aurrerapidea;
Eleizaren argia
langi I I iei laguntzen
bizi emaillea.

ONAINDIARENA

Zure almen ederrak...
ortzetik ar zenduzan
izar argi legez;
Euskalerra bidean
erabiltzeko doiak
Jaungoiko eskarrez.

Gaztaro zentzundunak
berez erun zinduzan
gizontasunera;
burua argitzea,
biotza ezitzea
zan zure on-bera.

Lanaren lanez landu
zenduzan buru doiak
gerora begira;
biotza urrezkotu
zentzunaren argiaz
ona egitera.

Arrokeria ez da
giza aunditasuna
bizitz inguruan;
norbere oparia
urkoei eskentzea
artzen da zeruan.

Gudak zarata dagi
beraren gogorkeriz
euzko lur guztian;
m uti l l i k oberenak
leoi suar antzera
lur zaintzen mendian.

Ta zu, euzko semea,
erri-zaletasunagaz
arazo zuzentzen;
Bizkaitik Parisera
paristik Erromara
lanean zenbiltzen.

Guda aldi guztian
erri onen arduraz
jokatu zenduan;
dana eskeini zeuntson
Aberri maiteari
gudaren oiñean.

Guda arazoetan
bitartekotasuna
zan zure arloa;
egíntza latzak ziran
etsaiekin sortzeko
bakezko giroa.

Zenbat ordu jun ziran...
zenbat indar negurtu
era onenean;
guztia opa zeuntson
jaioterri onari
samiñen artean.

ALBERTORI

Alan izan bear zan
zure almen guztiak
edatu artean;
argia, berez, dabil
gallurrik gallur, dizdiz,
mendi tontorrean.

Arranoa egazka
ludi guztira adi
arin doa aidez;
zure jakituria
irratiz ibili zan
egiak esanez.

Egia, berez, eder,
izarra ortzian lez
argi izpietan;
gaisoentzat osasun,
zapalduentzat poza
aldi estuetan.

Ainbeste milloi lagun
Parisera begira
zuri entzun nairik;
zerua zirudizun
egi irakaslea
itza eskeindurik.

Elizak emon eutsun
Jaungoikoaren itza
txiro landerrentzat;
milloiak beartiak,
gogoz, artu eutzuen
euren janaritzat.

Zegaz bardindu neike
zure itzaren poza
zoritxarpe artan...?
ez dago eguzkirik,
alan, poztu Leikenik
negu illunetan.

ONAINDIA PARISEN

Etsaiak, ondo, ekin
lan bikain orren barri
zapalduen alde;
ezin eben ikusi
erri salbagillerik
itzaren eskarrez.

Gudaren gaiztakeriz
zapaldu eben lurra
baita gizadia;
i lte onen ondorenak
ezin argitu al leiz
zabalduz egia...?

Ainbeste eriotza,
berez, egozen deika
zeru ta lurretan;
zure abotsak poza
emoten saminduei
biotz zaurietan.

Udabarri landara
zirudin zure itzak
eguzki argira;
argia nai orriak
ta arengana luzatzen
bere arpegia.

Zure billa ebiltzan
mindu eta bearti
zuzentza egarriz;
gizonak egia nai
neke-miñen artean
zuzentasun biziz.

Gizadiaren garra,
miñak arindu nairik,
irrika, ebillan;
bakea artzen eben
zure itzaren bidez
euren samiñetan.

ONAINDIAREN

Etsaia, gogor, dabil..
guda kurutza dakus
ondoren larrian;
egiaren argiak
miñez salatuten dau
odolen artian.

Egia kendu arte,
Parisko irratitik
guda egingo dau;
danen gaiñetik guda...
negarra kaleratuz,
egia zapaldu.

Gizon kaxkarkeriak
nunnaitan dira nausi...
lurreko gaisoa...;
zure egizko itza
arreta gogaiztoak
ixildu daroa.

ONAINDIARI

Egiaren indarrak
bildurtu zitun Franko
ta aren arloa;
Parisko irratitik
ixil-erazo eben
abots itxaroa.

Mundu aurrean lotsaz
aurkitzen ziran Franko
ta kurutz gudea;
ondorengo nekeak,
espetxe ta eriotz
ez zan giz erea.

Zapalckeraren aurrez
kristau erea egon
berezko izketan;
Belengo Jesus ez zan
zapaltzera etorri
ezpat amesetan.

ALBERTOREN ITZA

Zure ots zerutarra
milioiak gizonetan,
gozaro, sartu zan;
miñak poza nai eban,
gau illunak argia
neke sasietan.

Espetxe ta zigorra,
etxietan negarra
zan giz janaria;
zure itzak bakea
erion biotzentzat
graziaz betea.

Barnean ezarrita
askori itzi zeuntsen
Jainko irudia;
Aitak bakea nai dau
egiaz igurtzita,
gizonen bidia.

ALBERTO JAUNA

Ainbeste milla idazki
artu izan zenduzan
edozein lurraldetik;
biotz asko negarrez
eskean jun jatzuzan
samiñez beterik.

Biotz askatasuna
itxaropen on baten
nai eben gizonak;
ta zure itz argiak
maitasun eskar beroa
poztuten arimak.

Aleunka giza-semeak
zugandik artu eben
giz askatasuna;
ondo erein zenduan
gizonak bear eben
egi poztasuna.

ONAI N DIARENTZAT

Euskaldunaren gogoz
Paristik dator itza
egi irudia;
minduak poztutea,
zapaiduak askatu
zan zure egia.

Lurra onduta egon
ta itzaren azia,
gozaro, jausi zan;
millak giza bizitza
jakintzarik onenaz
indartu zenduzan.

Eguzki ta euriaz,
egiaren azia
sartu zan baratzan;
geroz on egin oro
esker miñetan dago
gizonen bizitzan.

ARIZMENDIARRIETA

Max mendi orleipean
baso etxe zuria
argiz dago dizdiz;
Iturbe basetxea,
beti, ez titan dago
ur kaskada zuriz.

Jose Mari len semea,
oiñordekotza itzi...
ikastera doa;
zeruaren frutua
gizonentzat deritxo
oparoagoa.

Oena egin nai dau
ta apaiz izango da
euskaldun artean;
gizonen egarria
argituaz asetu
nai Zeuke lurrean.

ABADE BIDEA

Mutilla ernai dago
basetxeko lorea
argi ra begira;
ez dauka atzerarik,
berezko eragiña
jokeraz aurrera.

Elburu ikusgarri,
Jainkoa oroz goitik
aurrean daroa;
argi dakus bidea
maisu onen gidariz,
pozez, oparoa.

Eskolaren jakintzak
ez dau ikaratuten
buruko argia;
ikasle iraunkorra,
jakiturizko itza
dau bere bidia.

ITURBE

Maitasuna baiño itz
erainkorragorik ez da
giza barrenean;
maitasuna emonkor
beti, agertuten da
urre biotzean.

Erriaren arnasa
izkuntzan daroagu
beraren biziaz;
on egin gura zeuntsan
sorterri maiteari
itza landuagaz.

Ikas arlo tarteak,
pozez, eskein zeuntsezan
euskal arloari;
salbamena itz bidez
gozaro, agertzeko
Euskalerriari.

SASE MARI

Gazte aro bizia,
ezin da geldi egon
odolaren garra;
euskaldun izkuntzari
ele eder dario
urre ta zidarra.

Izkuntz jaukal onetan
azaldu bear ziran
egirik bikaiñenak;
azpil zuri ederra
gizonen pozerako
bear dau fedeak.

Egi ri k ederrenak
izkuntza gailenena
nai dau lagungarri
argia eta poza
gariagaz batera
giza biotzari.

ARIZMEN DIARRI ETARI

Izkuntza baratzean
artu zendun argia
ume lo zorroan;
gure asaben itza
irriparrez jausi zan
zure biotzean.

Atsegiñez artu zendun
gurasoen abotsa
baserri bizian;
garo usaiña eukan
itza garbiz apainduta
edertasunean.

Atxurra ta aizkora
darabillez lanean
aintziñako eran;
euskeraren kabia
zarra ta garbia zan
euskaldun baratzan.

JOSE MARIA

Atsegiñez maite zendun
izkuntzaren mamiña
eta bere itza;
auskaldun pagadiak
dardara eragitzun
osturik biotza.

Gazte gazte ziñala
besarkatu zinduzan
Aitorren izkuntzak;
alaitsu etorkizun
biotz zabal zabalik
eskeintzen asmoak.

Egun **aztu eziña,**
zin ez beste guztia
opatu zeuntsana;
euskera **maite** zendun,
berak maite zinduzan...
urrezko estuna.

JOSE MARIRI

Deia, gogo iaioa,
barruz, asmau bear da
zeru urdinpean;
burua aske bear
bitxirik ederrenak
artzeko menpean.

Euzko mendi ederrak
biztu eutsun gogoa
argi zorrotzetan;
euskal itxas zabalak
sena indar-barritu
izkuntz gogaietan.

Euskal udabarria
zure izkuntz lanian,
egiz, zan joria;
laba-sua zirudin
idazkortzaren garrak:
eguzki argia.

IZKU NTZA LANDARA

Odolez artu zendun
euskerarenganako
tximista argia;
burdi aundi bat bear
errian zabaltzeko
ezilkor argia.

A zan amets zoria...!
izkuntzaren sustraiak
zabalduz argira;
lengo elertizale
ta izkuntzaren muiña
gozartuz zeurera.

Gure ele-ederra
irriparrez egoan
maitaleei begira;
Arabako zelaian
lora barriak datoz
izkuntza landara.

ADOREZ

Eguzki, euri, lurra
alkar-pozetan dabiltz
udako urretan;
mutillak ta izkuntza,
gogoz, aurrera doazi
euskal alorretan.

Gaztearen arnasa
izkuntzaz bat eginik
izarra iduri;
maietza loraz eder
mutillak ederrago
giza-ertilari.

Zenbat bide jorratu,
zenbat alor urratu
ete zendun pozez;
dana erriarentzat
izkuntza iaikalena
zaintzeko adorez.

ESKARREZ BETEA

Baratz baten ametsa
maiatzean izan zan
euzko elertian;
lore bitxiz josirik
egon zelai guztia
eguzki azpian.

Nornaik agertu zitun
beren zelaiko lorak
plazako argi ra;
udabarriko lili
udako urre bitxi
eguzkietara.

Arizmendarriet...
baratz artan zu ziñan
loreetan lorea;
eldu, mardul, jatorra
anai loreen artean
eskarrez betea.

ITURBETARRA

Zure idazkortza
urrezko biurtu zan
norgeiagoketan;
aritz adarren puntan
zu bakarrik zengozen
goi abestietan.

Mueta azkotako
txori abeslariak
zelairatu ziran;
zu ziñan urretxindorra
abeslari danetan
gorena baratzan.

Izkuntzaren ederra
zure idazkortz puntan
urrezko biur zan;
mamin aundiko itza
esaera bikaiñez
euskera loratzan.

JOSE MARIREN

Gudak apurtu zitun
ametsik ederrenak
bere naitara;
Aleman, Italiar
ta Aprikar moroak
Frankoren laguntza.

Aldi labur ondoren
euzko gudarostea
jausi zan indarpean;
eta zu Jose Mari,
zerutar zori bidez
bizien artean.

Bigarren gudaldia
Burgosen egin zendun
beti, on egiñez;
ainbat euzkotar lagun
poztu izan zenduzan
zure laguntzagaz.

ARIZMENDIARRIETA

Laster da abadetza,
amets danen elburu
Kristoren jaupari;
Barinaga erria
pozez dardaraz dago
adi anaiari.

Lenengo miraria,
ogia Kristo biur
maitezko egia;
Bariñarrak otoika
anaia izan dedin
giz salbatzaillia.

Jainkoa zeroazun
zure amets gidari
Mondragoi aldera;
goi igarle antzera
osorik sartu ziñan
langille errira.

ARIZMEN DIARRI ETAREN

Zure gizontasuna
fede ta abadetza
iru bitxi ziran;
Mondragoiko erri ta
bere langilleria
Jainkozko itza zan.

Deja egin eutzuen
erriaren abotsak
biotz barrenean;
gizonaren oiva,
gogoz, artu zenduan
apaiz bearrean.

Erri gizonen dela,
jainkoaren abotsa
zan zure ustean;
goi argizko indarrez
eta gizontasunez
jo zendun lanean.

ITURBEKO SEMEA

"Beartsuei egiña"
gizatasun laguntzan
"neuri egin zeunsten";
zeiari laguntzea
zan Kristoren gogoa
Iturbek agertzen.

Aren ardura dana
beartsuak ikusi
ta laguntzea zan;
gizonekin gizona
euren goraberetan
ta bizitza lantzan.

Bizitza esturatik
giza duintasuna
askatu nai eban;
ARIZMENDIARRIET...
zure jatortasuna
dagerzu asmoan.

ARIZMENDI

Etsaigoa sortu zan
aberastasu nezko
mantuen artean;
langilleri barria
ta era barrietan
jatorkez aurrean.

Egiaren indarra
sartu nai dau bizitzan
Dn Jose Mariak;
esanak entzun eta
aurrerantza doazi
lanbide asmoak,

Ta guda gogorrago...
kalez dabil burruka
gaizki esaletan;
egia be, aurrera,
daroe langilleak
lan ugarietan.

ARIZMENDIREN

Arizmend iarriet...
asma-argi sakona,
berez, artu zendun;
etxe ondoko ura
iturri gardenetan
itzez zirudizun.

Buru asmakizuna
biotzaren laguntzaz
gizon jaio zan;
lanari eskeinia
deuseztu egingo zan
gizonen onean.

Jaungoiko semeen alde
bizia jaso eban
Mondragoi aldean;
elburua betetuz,
gogoz, alegindu zan
langille artean.

Gogoz artu zenduan;
"pobreak argitzera
bialdu nau Aitak;"
lantegi ederrena,
egiaz ta lanagaz,
argitzen buruak.

Euzko gizadikoei
emon zendutzen lana
ta gizatasuna;
langilleak ba-dabiltz
zure Jorratzen bidez
lortzen garaipena.

Azia erein zendun,
lurra edertzen doa,
zure arduragaz;
ez zeuntsan ezer uka
zure gorputz i l keran
azken arnasagaz.

MONDRAGOI

Bizkaiko seme batek
ezilkortu zinduzan
giputx erri maite;
egiz, anaiak gara
fedez eta odolez
beti betirarte.

Bizkaiaren poza da
seme bat eskeintzea
giputx'tar anaiei;
gora euzko langille,
oroi zuen anaia
eta ekin (anei.

Zuen ona nai eban,
gizonen serbitzari
Kristoren antzera;
abadetza zaindu dau...
langilleak otseinduz
joan da zerura.

Asmo ederra zana
bere garai onean
egi biurtu zan;
gidariaren ~~deja~~,
gizonak onartua,
bikain, loratu zan.

Lora txorta eder bat
zirudin lantegiak
ametsez indartzen;
sendi bat dirudizu
Mondragoiko atala
erria goratzen.

Lurra begira dozu,
nunnaitik datorkizuz
barriak artzera;
ez zara txikiena,
langil batzar eredu
izarren antzera.

EUZKO GAZTE

Euzko gaztedi eder
lurreko gizonetan
ezinbardindua;
zetzuna ta egia
zenduzan eusgarri...
zure goiburua.

Lana zendun oiñarri
bizitzaren ardatza
gizontasunean;
arkaitz eta itxaso
lantegi eta solo
alkartuz lanean.

Erriaren arnasa
zabaldu zan zelaian
guztientzat eder;
ta zuk xurgatu zendun
oparo gozartuaz
birikiei esker.

GAZTE LEIALAK

Semerik oberenak
sortzezko lurra zaintzen
gogoz, mendietan;
ezin eben ikusi
amaren eriotza
etsai ezpatetan.

A zan leialtasuna...!
odolez gorrituta
euzkotarren lurra;
osorik eskein ziran
gizatasun guztiaz
Euzkadi zaintzera.

Euskaldun gaztedia,
arrituta nenkusan
itz eta egiñak;
ain auzart izan ziñan
burruka gogorretan
zainduten mendiak.

OLDOZMEN GALGARRIA

Giza gaiztakeriak
egin leiken baltzena
dabiltzaz asmetan;
kurutz guda izenez
auts biurtu erria
guzur omenetan.

Erria gura eben
ondamendiz bildurtu
eta sua biztu;
nauskeriaz pustuta
nor gure aiñakorik
ete nai agertu...?

Mozkortuta bai-legez
erabagia artu zan
egun galgarrian;
buruak, nun, dabiltz
satanek itsututa
euren beltz unian.

GU DA ASMOAK

Atzerritik dakarrez
biziaren etsaiak
Gernika austera;
zentzugabekeria...
gizon zuzen usteak
datoz suz i ltera.

Arritu zaitez jauna,
astelen arratsaldez
izanen ilketa;
azoka eguna zan
ta obena baltzago
geio odolduta.

Bakez egon jentea
saldu-erosi bidez
bizia indartzen;
eta, ortxe, egoan
etsaiaren biotza
eriotzak sortzen.

EGAZKI NAK

"Kondor taldea" dator,
alamandarrak dira
egazkin itzalak
zarat itzalgarria
trumoi dardar dirudi
gorrotoz biotzak.

Ta zu, Gernika maite,
bildots zuri antzera
zeure jardunetan;
ta otsoak esnarik
etsaigoa ustuten
zure lur gaiñetan.

Bota suagak, bota,
bakez dagon errira
Patxin izenean;
errien eriotza
ikasi nairik dabiltz
Gernika gaiñean.

GERN I KARI SUA

Gernika sutan dago...
ondamendizko garra...
eldu zan errira;
urkia dator goitik
su gorri biurturik
alde danetara.

Suaz etxeak jausten
zatika datoz bera
amaren miñera;
umearen negarrak
ama erdibituten dau
samintasunera.

Ezin igesik egin,
arriak zapalduta
suzko garretatik;
ta suaga barriak
gorrotoz jausten ziran
ezin aspertu ri k.

SUARI SUA

Ikuspegi samiñ...!
ikaratuta dago
nire borda zarra;
Gernikaren etsaia,
zer edenek zaroaz
su-gar orretara?

Bota eta bota zabiltz
Jainko erria ilten
buruz zoraturik;
sumendi dirudi
lur guztia erreten
Gernika austurik.

Mendi egal guztiak
ke baltzaren indarrez
erresum i ñetan;
lerkai sutarazleak
suari sua ezarten
zorakerietan.

SUA TA SUA

Gizonaren karraziak,
umien alarauak,
amaren negarra;
mendian sartzen dira
arkaitzak urratuaz:
odol oiu garra.

Akerrak ete dira
gizonezko jantzita
aidez dabiltzanak...?
ez da gizonarena...
izan ezik bederen
biotzez galduak.

Nork agindu ete lei
ain ilte galgarria
suaren erdian?
abereak ez dau ein
olan eriotzarik
beren zoraldian.

GARRA

Aurrera doa garra...
burdiñak eurak sutan,
gori gori, dagoz;
arriak kiskalduta
baltz biurtzen doazi
illak auts eraziz.

Biziak iges doaz
suaren ziñaldari
arnasa miñetan;
etsaiaren biotza,
pozez, begira, dago
ankerkerietan.

Etsaiaren barrena
laiñoz baltzitu da
eriotz galgarriz;
betirako daroa
suaren erre-miña
lepoan dindiliz.

SUTAN

Txarkeri ain aundiak
mozkortu dauz gizonak
zorabioetan;
zentzunaren argia
astoratuta il zan
giza garunetan.

Gorroto neurgeaz
ikaratu nai eben
euzkotarren lurra;
Euzkadi il nai eben
beren izena austuz...
eriotz negarra...!

Gernikaren su-garrak
zarat egiten dautso
mundu zabalari.
ta gero lotsa dira
txarkeria ezarten
euren buruari.

GARRAK GORANTZA

Suaren **gar ta kea**
izarretarantz doa
atsa dariola;
il ketaren testigu
odol **usaiña** dauka...
illaren tamala.

Iltzaille biotz **geak**
ilketa **zalakuntza**
asmau dau barnean;
lotsatu egiten da
ainbeste **odolegaz**
erantzupenean.

Ain da **sama** aundia,!
su ori kendu nai dau
buru **azurretik;**
ta **euzkoei** ezarri
txarkeria guztia
zentzuna galdurik.

KISKALDUTA

Lurra dardaraz dago
lerkai ots astunekin
Gernika aldean;
ainbeste samiñik,
gaur, nal ete zenduke
zure bularrean...?

Lutvvaŕfe egazkiñak
aldraz agertzen ziran
Gazteiz aldetik;
ekiñalean bota
burdin eta su-gori
ezer itzi barik.

Ikusgarri larria...!
etxe guztiak beian
dana makurtuta;
arri zelai zirudin
Gernika erri danak
suaz kiskalduta.

SU GARREZ

Nun da "kurutz guda" ren
maltzurkerizko itza
Gernikan erretan...?
berak ez daula erre...
ta Gernikak dirautso,
zuk naukazu sutan.

Barrero jardungo dau
kezka kendu ezinik
buru biotzetik;
ain da lotsagarria
erria erretea
gorrotoz beterik.

Ekiñaldi gaiztoa...
norbere oben zarra
besteei ezartea;
gizontsu izan nai
ta odolak dirautso...
ez ene semea...!

GERNIKAKO GARRA

Al! nere borda zarra...
Arrituta zakusdaz
dana samindurik;
lerkaiak erre dabe
maite zendun erria
erruki bagerik.

Txakurrak u l u dagi
naigaberen miñez
ainbeste txarkeriz.;
nora ezean dabil
erresumin atsagaz
buruko min aundiz.

Len, aurrean ekusan
maite eban erria
bake zentzunetan;
orain guztia dakus
suagaz auts eginda
negarrez miñetan.

BORDATIK BEGIRA

Nire borda ondoko
baratza eder-miña,
len, usaintzen neban;
gaur, su odol nasteko
erresumin garratza
artzen dot zelaian.

Bordetara begira
ez dot ezer sentitzen
nekea besterik;
bakardadea, lorra,
jaubetu dira bordan
miñez (arriturik).

Lengo zaunka zoliak
ulu biurtu dira
mendi egaletan;
txorien abestiak
suak erre daroaz
zugatz adarretan.

GERNIKA

Euzko amets kabia,
iñoz aztu eziña
zan zure bizia;
nun dira zure etxe
ta euzkotar kabiak...?
Bizkai arnasia...

Gernikako kaleak
galdu ziran oiñean
egazkin azpian;
Frankoren gorrotoa...
zure testigu ziran
arriak lurrian.

Arripean ixilik,
an, il ziran lagunak
endaren oiñarri;
odol orren gaiñean
ondoren sortuko da
Euzkadi leiñargi.

GERNIKARI

Egun galgarriena
udabarriz izan zan
enda biotzean;
berantza bota-alan
buruak erotuta
egazkin gaiñean.

Garra sendotzen doa
eta ke laiño baltzak
mendiak estaltzen;
azokatar jentia
bizirik geldituak
negarrez urrintzen.

Egazkiñak berantza
euren guraritara
jenteai tiroka;
gorrotorik ba-dago,
an, zan bekaizkeria
biotzez gaiñezka.

GERNIKA SUTAN

Gaiztakeri bardinik
ba ete da munduan
biotz ankerretan...?
zorakeri ain baltzik
iñoiz sortu ete da
buru azurretan...?

Kaleak erre dira,
etxeak auts biurtu
ondamen larrian;
bakardade samiñak
ta bizien negarrak
asmetan lurrian.

Or egon zan Gernika,
euzkoen biotz muiña
eta Lagi Zarra;
auts ortan sortuko da
barriro, Aberria
ta euzko indarra.

GIZONAREN EZBEARRA

Bakarde bakarra
ta eriotz samiña
dagoz arribean;
etsai arrokeria
poztu da ikusirik
erria auspean.

Eta zu, Lauaxeta,
gizon leiñargi ori,
nora joan ziñan;?
dana eskeini zeuntsan
Aberri maiteari
suaren oiñetan.

Etsaiak lotu zaitu,
askatasuna galdu
eriotz bidean;
erraldioen antzera
ixur zendun odola
ormaren aurrean.

ESTEPAN

Abertzaletasuna,
beti, zendukan deika
odol dardaretan;
amagaz bat ein ziñan
etsaien erpapean
ordu latz aretan.

Nor egoan, an, loitzen
Gernikaren ederra
gorrotoz, bizirik?
nor zeunkan itxaroten
ezpataren dardaraz
itza kendu nairik?

Bildots zuri antzera
leoi erpapean,
larri, jausi ziñan;
etsaia, pozik, egon
odol ase eziña
irakiten eukan.

Gernika, nor ziñan zu,
Euzkadiren lurrean
ain gorrotogarri...?
zer dau zure biziak
su ori botateko
bake erriari...

Zer adu on daukazu
Euskalerrira adi
zure legietan...
arbasoen gogoa,
ortxe, lorez jantzi an
egi ederretan.

Egia ez dau maite
zapaltzaille ankerrak
guzurkerietan;
burdiñaz eta suaz
il nai izan zinduzan
etoi kerietan.

Endaren ezaugarri,
ortxe, dago aritza
bakean ixilik;
aritzpe zindo ortan
ein zituan legeak
bideak landurik.

Euzkadi eurena zan
jabetasun guztiaz
erri eskubidez;
erriaren oiturak
lege biurtzen ziran
demokrazi bidez.

Euskalerriko sena
anaikorra izan zan
askatasunian;
aritz ganian Kurutz,
beti, euren goiburu
erritar bidean.

Zer daugar itzal au...?
Beren erresumiña
nora naira doa;
edena dariola
zabaltzen da mendira
laiño baltz zoroa.

Arrats-bera larria...
Izadia negarrez
gizadi m i ñari;
arkaitzak orroaka,
mendiak uluaka
illen samiñari.

Aittitte sutan dago,
illoba arripean
erre ta kiskaltzen;
ama begira dago
bere seme-alabei..'
biotza urtutzen.

Eguzkia ikaraz
odolezko laiñotan,
goian, estaldu da;
izarrak lotsatuta
Gernikan jazo danez...
Frankoren egiña.

Azken ulu samiñak
ixilduten doazi
etsipen miñetan;
mendien naigabea
illen aldezko otoi
biur da goizetan.

Dana, ixilik, dago...
azken garrak doazi
gorantz gorrituta;
iltea osotu da,
odolak esango dau
nor dagon loituta.

KRISTAU ALKARTASUNA

Oi zein eder dan alkartasuna
kristau bizitz zuzenean,
beti egia gogoraturik
salbamenaren bidean;
ortuan lana, baratza lantzen
bizitzaren izenean,
Jaungoiko itza beteturikan
izerdi neke artean.

jainkoak nai dau gure bizia
bere antzeko eitea,
asmo-ortarako egokia da
bakardade bizitzea;
bi edo iru bere izenez
gogoz nai dau ikustea,
lagun orrekin, pozez beterik,
egin bere bizitzea.

Bakardadean gogo ta biotz
askeago bizi dira,
munduko trumoi barregarriak
itzirik alde batera;
norbere baitan oroiturikan
gauza onenak egira,
era onetan sortueraziz
bakea bizitz barnera.

Zarata barik bakardadean
itz egiten Jaungoikoak,
lagun apalak, gogoz, entzuten
egi salbabidezkoak;
kristau ta jainko alkarturikan
biak zorionekoak,
oi bakardade zorioneko...
zorioneko lekuak...

Urte Barrian gogo barriak
poztu daiala bizia,
gaurtik aurrera jorratuteko
graziaz bide luzia;
alaitasuna ta maitasuna
ortzetik dator aria,
etxe onetan loratu dedin
osasanagaz bakia.

BETIKO BIZIA

Egun bakarra, egun aundia,
etxe agurtueria,
ainbeste amets eta bearren
maitasunezko kabia;
ordu ederrak igaro nitun
maitatzen neure erria,
biotzez agur uri ta mendi
Euskalerriko jendia.

Bizitz gogoia indartsua da
berezko gizon legea,
mingarria da gorputzarentzat
lurraren auts biurtzea;
baiña fedea eskeini dausku
bizitz eskarrez betea,
itxaropenez artu dagigun
zor dogun eriotzea.

Jesus maitea Kurutzan il zan
munduaren saibagarri,
beren almenez biztu egin zan
gizonaren bizigarri;
lur onetako giza semeak
danak ditu maitegarri,
beren jarraille diranentzako
zerua dau zoragarri.

LURRARI AGURRA

Jainko Altsua sinistu neban
zeru lurren Egillea,
beregandikan artu nituan
bizia eta fedea;
dana izan zan esker utsean,
Aitaren borondatea,
Zu zara nire arduraduna
eta bizitz maitalea.

Giza-seea zure antzeko
sortu zenduan lurrean,
buru argiaz ta maitasunez
jokatuteko lanean;
txiroak maite, eurei lagundu,
nai zenduan gizartean,
kateiak ausi eta gizona
jarri askatasunean.

Autsa dan lurra eder dalarik,
ez dau asetzen gizona,
gure gogoak Jaungoiko Jauna
izan bear dau laguna;
berarentzako egin ginduzan
eginik beren esana,
Aita maitea, erruki eske
natorkizu Zuregana.

LENENGO JAUNARTZEA

Au da eguna eldi jakuna
Jaungoikoaren aurrian,
au da zoramen arrigarria
poztuten dauna lurrian;
ikusten ez dan miragarria
dogu gidari bizian,
goiz eder ornan saltari daukat
odol dana biotzian.

Gure guraso maitegarriak,
beti, arduraz betiak,
otoi artean artzen ditue
lantegietan nekiak;
Jesus gaberik ez dau grazirik
aldi ontako biziak,
biotz zabalik, irriparreka,
dabiltz jaungoiko semiak.

Gure barrura Jainko argia,
geldi geldika, eldu zan,
guraso onen borondatiak
asko poztuten ginduzan;
otoi egiten ikasi gendun
etxean eta Eleizan,
kabi bi onek dira gidari
gaur ta biarko bizitzan.

janari eder bizigarriak
emoten ditu etxeak,
baña danetan laguntzen deusku
Jaungoikoaren eskuak;
ez dira naiko lur ta lan toki,
ezta gizonen nekeak,
Alta Altsua, errukiz, dabil
zuzentzen gure bideak.

On danez gotik, gaur, emon deusku
beren izate guztia,
jainko ta gizon eskeini jaku...
au da itz arriagarria;
gure arteko alkartasuna
sortu daben janaria,
oin, izan bedi gure gidari,
gero, betiko zoria.

JAUNARTZEA

MEZA AURREAN

Egun ederra, egun santua,
poza dau ezaugarria,
goiko ortzetik dakar argia
biotz barrutik urria;
Jaungoiko Altsu, zugana gatoz
guraso eta umia,
danok batera gurtu dagigun
Jesus aur agurgarria.

ESKEINTZA

Ogi ardaauak eskeintzen goaz
aldara arri gaiñean,
arnari onek biurtuteko
Jaungoikozko izatean;
gure bizia eskeintzen dogu
asmo garbi onenean,
gizonen miñak arinduteko
negarrezko erbestean.

AMAIERAN

Kristau erria, maite Jainkoa
zure sormen Egillea,
maitasun utsa eta egia
bera da gure bidea;
ez da besterik zure lakorik
ontasun urrez betea,
zurekin, beti, bizi nai dogu,
gero arte Jaun maitea.

ESKONTZA

MEZA AURREAN

Di zein eder dan sinismen argí
lagun zintzoen bizitzan,
aldi ontako gora-beretan
goi argiz indarturikan;
lagun taldea alkartu gara
Jainko Jaunaren alelaran,
eskari on bat egitearren
gazte barrien ezkontzen.

MEZA AMAIERAN

Ortza illundu, arriak dardar,
arrats ikaragarria,
Kristoren neke, oiñaze arek
damoskue poz argia;
ordu onetan oroitu dogu
Kristoren jazoerea,
biotz zabalez, eskarrez dozu,
zuk maite dozun sendia.

MEZA AURREAN

Jainkoaren erria, emen, bildu gara,
etxe onetan, zintzo, otoi egitera;
Aita begira gagoz zure errukira,
eskaria onartu zure naietara.

MEZA ONDOREN

Egiteko aundia egite danetan,
gogoz, osotu dogu ordu santu ontan;
Jainkoaren semea izan da egitan
gu-gaitik opa dana zeru ta lurretan.

MEZA AURREAN

Asmo onenaz etorri gara
Jesusen otoi etxera,
gure arteko bear-izanak
Jaunari aurkeztutera;
zureganako sinismenagaz
gatoz otoi egitera
onbera zaitetz Maisu Altsua,
gure eskari erara.

MEZA ONDOREN

Gure batzarra eder izan da
jaungoitzakoaren aurrean,
zorioneko kristau erria
sinismenaren bidean;
Jesus beragaz ospatu dogu
salbamena aldarean,
egitekorik aundiena da
gizon ta andrentzat lurrean.

MEZA AURREAN

Kurutzan dakust jesus maitea
odolezko eriotan,
dana urtu zan miñez josita
giza maitasun garretan;
bere naitara alkartu gara
mai onen inguruetan,
Jesus oroituz salba gagizan
lurreko ezbearretan.

MEZA ONDOREN

Ospatu dogun jazoereak
dardara zitun arriak,
golgota-mendi illunez jantzi
urratuz eleiz zapiak;
gure barruak zabaldu ditu
Kristoren egitadeak,
ilxaropenez jantzi zaitetze
esaten deusku fedea.

ESKARIAK

Euskalerriko eleiza alde
izan bedi len otoia,
belarri zurrez entzun dagian
Aita Jainkoaren deia;
artzain ta-artalde alkaturikan
izan dagian bizia,
eta ondoren, gogoz, zabaldu
Jaunaren jakituria.

Gaiso ta nausi beartsu alde
doa gure eskaria,
eurak dira-ta, lengo aldian,
sortu ebenak bizia;
adin orretan ta gaisoetan
artu gure-eskar betia,
Aitak bedeinka dagiezela
guraso t'euren nekia.

Gure erria oroitzen dogu
irugarren eskarian,
danez gaiñetik zuzenbidea
bizitzan izan dagian;
gure etxeetan izan dedilla
maitasuna biotzian,
guztion arte zaindu dagigun
lur au beraren onian.

MAI I3EDEINKAPENA

Mai eder baten aurrean gagoz,
oro janariz jantzirik
aiskide itzak alkartu gaitu
alaitasunez beterik;
Alta Jainkoa sinistu dogu,
zugan uste on izanik,
janari onek bedeinkatuizuz
maí Iagunei on eginik.

ESKONTZA

MEZA AURREAN

Neska ta mutil, ondo etorri,
ta bardin laguntzailleak,
une onetan gure Aitari
egiteko eskariak;
bizitz barriak, ziur, nai ditu
sasoi onez mesedeak,
alkartasunez, beti laguntzen
joan daitezen urteak.

MEZA AMAI ERAN

Egite on bat amaitu dogu,
munduan dan ederrena,
zeru ta lurren Egille dana
etorri da guregana;
zuen artean emon dozuen
itzaren maitetasuna,
Jaungoiko berak bedeinkatu dau
zuen ezkontz zoramena.

MEZA AURREAN

Anai areba maitegarriak
artu ongi etorria,
Jaungoiko graziz bedeinkaturik
zuen alkartzte maitia;
aurrera beti, sinismen bidez
zuen bizitza guztia,
itxaropenak poztu dagían
zuen ezkontza bizia.

MEZA ONDOREN

Kristiñau legez ospatu dogu
zuen bion alkartzea,
Jaungoiko Aitak bedeinkaturik
zuen bizitza maitea;
gaurtik aurrera Jauna dozue
maitasun laguntzaillea,
zuek osteraren irudi
itxaropenez betea.

ANDRA MARI EGUNA

MEZA AURREAN

Andra Mariren **Jala** ederra,
egun gogoangarria,
gizadiaren salbamenaren
egizko sort-iturria;
aldara **ornan** eskeintzen goaz
bere semeren bizia,
bizi izateko jaio giñanok
lortu dagigun zona.

MEZA ONDOREN

Pozaren pozez saltad dogu
guíe biotzen barrena,
Andra Mariak lagundurikan
egin dogun lan onena;
Jesusen bizitz zoragarria
Jainkotarren goramena,
bide gidari gure bizitzan,
gero, gure zoramena.

Egunik egun, urterik urte,
gogora daigun Maria,
bera izanik zero goietan
izar dizdirazaria;
pozez gaiñezka dauka biotza
zabaldu nairik argia,
betor gugana zure laguntza
zeru aituko loria.

MEZA AURREAN

Neska ta mutil ongi, etorri
egun **gogoangarrian**,
zuen Aitareen etxea dago
zabal-zabalik **aurrian**;
zuen asmoa alkartasuna
dozue **aurrerantzian**,
gurari ori **ones daiala**
Aitak bizitza **luzian**.

MEZA ONDOREN

Gizon artean egin leiteken
egikizun aundiena,
ordu onetan osotu dogu
gure **egirik** onena;
Kurutza bidez etorri jaku
il kor danen **salbamena**,
au da guretzat pozaren poza
betiko itzaropena.

Alkartasun au dedilla eder
alan baita egizkoa,
zuen bizitza **urte** askoan
izan daitela sendoa;
aldi eder bat, pozez, beterik
gogoz, **osasunezkoa**,
gero ondoren izan **daizuen**
arnas **zorionekoa**.

MEZA AURREAN

Kristau **fedez** alkartu gara
aldarako mai aurrean,
Jesus Maisuak agindu euskun
itzaren oroimenean;
Jainko Semea eskeintzen dago
gugaz alkaratasunean,
betiko poza lortu dagigun,
emen, gagozan artean.

MEZA ONDOREN

Eskerrik-asko Jesus **maltea**,
maitasun ederra-gaitik,
munduan ez da, inoiz, ikusi
ainbesteko **ontasunik**;
zure bizia eskeini **zendun**
gizadia salbau nairik,
ainbeste odol, ainbeste neke
munduari **opaturik**.

Eskerrik-asko **Salbagillea**,
zordun gara gu zurekin,
zure esana egingo dogu
gogo **biziz** lurraren gain;
artu apari agurgarria
txarkeri guztien ordain,
zuzentasuna eta bakea
gizarteetan izan dedin.

APAIZEN

ZI DAR TA URRE EZTEGUAK

Urteak urte iges doazi
bizi-toki polit ontan,
atzo umeak ta gaur agurak
irriparre gozoetan;
ume maiteak jolaslariak
agurak ixil unetan,
bizi legeak bereak gaitu
eskar oneko bidetan.

Bizitz muetak, danak ederrak,
baserri ta urietan,
mendiak eder, zelaiak orlei,
aize garden garbietan;
txoriak kanta, txakurrak zaunka
basetxe inguruetan,
alaitasunak dauka kabia
ume txikien kumetan.

Begira nago, begira zagoz,
gure sagastietara,
zugatz guztiak lorez egozen
zeru altura begira;
orain aleak eder mardulak
usain zabaltzen zelaira,
eskuak artu, otzarak bete,
umauak doaz plazara.

Lur onetako bizibidetan
bat da urregorritzkoa,
baserrietan atxurren lana
miñetan burdiñezkoa;
baiña orretan ezin asetu
gizonen barne gogoia,
geure izatez garealako
azur-mamin goitikoa.

Bide onena artu gendula,
oroi zaiteze lagunak.
Jesusen antzo ona zabaldu
sortuaz alkartasunak;
egiak nai dau gizona salbau
kendurik neke astunak,
gure jakintza orretan dabil
aurkeztuz bide zuzenak.

EZKONTZA

MEZA AURREAN

Ordu onetan etorri zare
zuen ametsa osotzen,
mutil gaztea ta neskatilla
gaur, zorionez betetzen;
kristau erara alkartzen zare
ta Jainkoak bedeinkatzen,
otoi dagigun anal guztiok
zoriontsu-izan daitezten.

MEZA ONDOREN

Egite on bat osotu dagu
jaungoikoaren legian,
ederragorik ezin daiteke
sinistedunen aurrian;
Jainko berbera, emen, izan da
testigantza onenian,
beren laguntza betorkizue
zuen bizitza guztian.

Biok euskaldun, biok zintzoak
Lege Zarraren bidean,
biok kristiñau, biok Ieiaiak
guraso maiteen erean;
ezin ein leike gauza oberik
zuen biotz barrenian,
maite zaitezte, on egizue
zuen biotz ederrean.

Jaungoiko Jauna parkatzail **lea**,
ta zuzenen poztasuna,
anai oneri lur emoneran
arrenka gatoz zugana;
zure autuen anai artean
emoiozu zoriona,
berbiztueran gozartu daian
zure arpegi biguna.

ESKEINTZA

Sinistedun zan zure otseiña,
emen, daukagu aurrean,
opari on bat eskeintzen gatoz
illobi ratze-egunean;
eta ezertan uts egin ba-dau
loituz erantzupenean,
Aita, parkatu zure errukiz
eta garbitu barnean.

MEZA AMAIERAN

jainko Altsua, guztion **Aita**,
zugana gagoz begira,
opari onen bitartekotzaz
garbitu utsak argira;
mundu ontatik deitu dautsazu
semeari zure maira,
alaitasunez poztu egizu
ta jaso goiko zerura.

MEZA AURREAN

Jaungoiko Aita, Guztiz Altsua,
gauz guztien Egillea,
sinismen argiz onartzen dogu
Jesusen eriotzea;
gure anaia eriotz ortan
gure arreba eriotz orlan
izan da partekidea,
era berean emon eiozu
zeru zorion betea.

ESKEINTZA

Opari onek eskeintzen gatoz
aldara arri gaiñean,
anai onentzat eskatuagaz
arrebarentzat eskatuagaz
bizia zorionetan;
sinistu eban, itxaron eban,
zure grazia goietan,
abegi onez artu egizu
zeru goiko argietan.

MEZA AMAIERAN

Cure jaungoiko ta Jaun Altsua,
munduaz errukiturik,
zure Semea emon euskuzun
Sakramentu biurturik;
arren bai arren, eskatzen gatoz
errukiz begiraturik,
zure semea (alaba) poztu egizu
zerutar argiz beterik.

Zintzoen zori, zuzenen bizi
zara Jaungoiko Altsua,
jesus maiteak kurutza bidez
lotu euskun salbamena;
eskar onean eskatzen gatoz
arrebaren (anai onen) zoriona,
sinist zinduzan, maite zinduzan,
emon Jauna, atsedena.

ESKEINTZA

Zeru ta lurren Egille Jauna,
eta pertsonen argia,
zuri begira, emen, gaukazuz
kristau talde anaidia;
ona rtu, Jauna, gure opari
arrebalde (anal alde) eskeinia,
ikurton bidez garbiturikan
izan dagian bizia.

MEZA AMAIERAN

Sakramentuen eskar aundiaz
indarturik bizitzea,
zure jarraian osotu eban
lurreko jokabidea;
Kristoren miñez eta odolez
garbitu dan pertsona,
zugaz batean gozar daiala
betirauneko bakea.

ILLEEN ALDE

MEZA AURREAN

Jainko Altsua, zure semea
berbiztu zendun lurrean,
eriotzea menperaturik
sartzeko zure-erreñuan;
il diran zure seme-alabak
onartu eizuz zuregan,
euren Egi Ile eta Jaun legez
maite zagizen zeruan.

ESKEINTZA

Ordu onetan eskeintzen goaz
ogia eta ardaia,
Kristoren gorputz bai ta be odol
biurtuz gure aldera;
Jainko Altsua, erruki aundiz
jarri gure eskarira,
eta bedeinka seme-alabak
zeure graziazko erara.

MEZA AMAIERAN

Ordu onetan eskeini dogun
opariaren bitartez,
ixurí Jauna, eskar ugari
erruki bedeinkapenez;
zuk emon zeuntsen seme alabei
Bateoa eskar utsez,
zeru zoria emiozue
parkamenaren eskarrez.

URTEURRUNE

MEZA AURREA

Lagun on bate urteurruna
gogoan daukagularik,
anai legean, gogoan dogu
otoitzean alkarturik;
arren bai arren, Jainko Altsua,
aregaz errukiturik,
zure santuen zorionean
artu egizu bizirik.

ESKEINTZA

Maitasuna da zure legea
anai artean lurrean,
opari onen bitartez Jauna
eske gagoz aldarean;
zure gogoa errukizkoa
izan zan Kurutz gaiñean
urrezko jantziz apaindu eizu
semea (alaba) betiraunean.

MEZA AMAIERAN

Gure sendiko lagunen alde
nai zenduzan erreguak,
emen, gatortzuz erruki eske
dardaratuz zure itzak;
zure erruki orren bitartez
garbitu uts egiteak,
anai arteko santu bizitzan
poztu daiela zoriak.

GURASOEN ALDE

MEZA AURREAN

Jainko Altsua, zuk esana da
gurasoak maitatzea,
nire aitaren eta amaren
aldez izan errukia;
parkatu Jauna, uts egiteak
eta ixuri grazia,
danok batera gozartu daigun
zeruetako argia.

ESKEINTZA

Sinismen aundiz ta maitasunez
ein nai dogu oparia,
lurrean ziren ma'teenentzat
opalduz zure bizia;
Jesus maitea, gogoan artu
aita eta ama maitia,
guztiz ederra izan zalako
euren kristau arduria.

MEZA AMAIERAN

Meza ontako Sakramentuan
parte artu dogularik,
mesede on bat eskatzen nator
itxaropenez beterik;
nere aitaren eta amaren
bizia zeruraturik,
betiko argiz bizi gaizala
Jaungoikoagaz pozturik.

EZKONTZA URTEURRUNA

MEZA AURREAN

Andra ta gizon jarri zenduzan
edengo parabisuan,
ta bion arte sortu zenduan
ezkontz legea munduan;
bedeinka zazu eta sendotu
onen garra biotzean,
Kristo eleizaz bat egin dana
agertu daien lurrean.

ESKEINTZA

Ur ta odola ixuri ziran
Jesus, zure saietzetik,
salbamenaren misterioa
gizonei agertzegaitik;
eskeintza onek onartu eizuz
anai-arreboi on einik,
ezkontz urtea ospatukeran
alkartasuna geiturik.

MEZA AMAIERAN

Alaitasunez bete egizuz
zure semeon biotzak,
zeru janariz eta edariz
pozez beterik biotzak;
gizontasuna eta bakea
izan dagien etxeak,
lagun urkoei emon dagitzen
maitasun bidezko pozak.

ZIDAR EZTEGUA

MEZA AURREAN

Oin ogetabost urte direla
maitasuna jaun izan zan,
bizitz eder bat eiteko ustez
alkarregazko Iaguntzan;
neke-min eta **pez** aldietan
Iagunduagaz bizitzan,
guraso eta seme alaba
pozkiroz bizi eitezan.

ESKEINTZA

Eskar onean dakartzuguzan
eskeintz onek artu Jauna,
senar-emazte onen aldera
bialduz Iaguntasuna;
ta opari au izan dedilla
etxearen osasuna,
guraso eta semientzako
sendiaren poztasuna.

MEZA AMAIERAN

Gure Egille Guztiz Altsua,
eskar guztien abia,
zure aldarán artu dituzu
semia ta alabia;
alkar arteko maitasunean
egin daiela bidia,
zeruetako bazkal orduan
izan dagien zoria.

URREZKO EZTEGUAK

MEZA AURREAN

Aita Jainkoa, Guztiz Altsua,
ontasunaren jaubia,
abegi onez begiratuizuz
guraso eta sendia;
egite onak gogoan izan
baita bizitza luzia,
zure semeok bedeinka Jauna,
emon bizitza maitia.

ESKEINTZA

Zure semien eskar onean
dakarguzan opariak,
goi ontasunez artu egizuz
maitasunez esekiniak;
ainbeste urtez alkartasunez,
bizi diran jaun-andriak,
aurrerantzian zure laguntzaz
egin daiezan urtiak.

MEZA AMAIERAN

Mai onetako janariekin
gozaro alikaturik,
aurrerantzian zaindu egizuz
zartzaroa onetsirik;
urte ederrez, egite onez
bizitza aberasturik,
zeruetako zorionean
artu egizuz poz-pozik.

EGILLEAREN BESTE
LAN BATZUK

<i>"Uskeriak"</i>	1960
<i>"Urre-bitsa"</i>	1961
<i>"Gizonetan"</i>	1969
<i>"Gizadian"</i>	1972
<i>"Deika"</i>	1974
<i>"Erri arnasa"</i>	1977
<i>"Eder Minetan"</i>	1986
<i>"Aldatz gora"</i>	1987
<i>"Aldatz malkarretan</i> <i>ta</i> <i>Gernika erretan "</i>	1987